



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko azaroaren 5a

127. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

- 11-24/LEY-00011. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua (2. or.).
- 11-24/LEY-00011. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua izapidetzeko egutegia (43. or.).
- 11-24/LEY-00011. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko arauak (44. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00011. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2024ko urriaren 30ean hartutako Erabakiaren bidez, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 146, 174 eta 177. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua bideratu dadila hori izapidetzeko Arauek ezarritako prozedurari jarraituz. Arau horiek Legebiltzarreko Mahaiak 2024ko urriaren 30ean hartutako Erabakiaren bidez onetsiak dira.

2. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko eskumena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik epe bat irekiko da, 2024ko azaroaren 11ko 12:00etan bukatuko dena, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteak eta foru parlamentariak nork bere izenean osoko zuzenketak aurkeztu ahal izateko, eta beste epe bat, 2024ko azaroaren 19ko 14:00etan bukatuko dena, artikuluei eta aurrekontuko partidei zuzenketak aurkeztu ahal izateko, Erregelamenduko 147. eta 176. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua

I. TITULUA **Kredituak eta horien aldaketak**

I. KAPITULUA **Hasierako kredituak eta horien finantzaketa**

1. artikulua. Nafarroako Aurrekontu Orokorren eremua.

1. Onetsi egiten dira 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. Atal hauek dituzte:

a) Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren eta Arartekoaren erakundearen aurrekontua.

b) Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuak.

c) Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua.

d) Foru Komunitateko fundazio publikoen aurrekontuak.

e) Foru Komunitateko sozietate publikoen aurrekontuak.

f) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontu zenbatetsia eta finantzaketa.

g) Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren aurrekontua.

2. Halaber, jasotzen da Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren aplikazio eremuan dauden beste subjektu eta entitate batzuen aurrekontuei buruzko informazioa, lege organiko horren 6.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. artikulua. Kredituen eta eskubide ekonomiko-koen zenbatekoa.

1. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontueta-ko gastuen egoera-orrietan sartutako programak betetze aldera, onesten dira 6.431.264.947 euroko zenbateko bateratua duten kredituak.

2. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontueta-ko diru-sarreraren egoera-orrietan, aurrekontu ekitaldian likidatu asmo diren eskubide ekonomiko-koen zenbatespenak agertzen dira; hain zuzen ere, 6.431.264.947 euro giten dute, bateratuta.

3. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat, gastu ez-finantzarioaren muga, behin Toki Ogasunen Funtza eta Estatuarentzako ekarpena deskontatu ondoren, 4.781.527.567 eurokoa da, diru-sarrera ez finantzarioak, kontabilitate nazionalaren doikuntzak eta defizit muga batuta.

II. KAPITULUA

Aurrekontu-kredituen aldaketa

3. artikulua. Aurrekontu-kredituen aldaketa eta aurrekontu-mugimenduak.

1. Aurrekontu-kredituen aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko aginduen arabera izanen dira, foru lege honek agindu horiek aldatzen ez dituen heinean.

2. Partiden arteko funts-mugimenduak egiten ahalko dira, baldin eta partida horietan agertzen diren kredituek helburu bera badute baina partidak desberdinak badira Europar Batasunak horretara behartzen duelako, gastuen erabilera hobeto kontrolatzearen, gastuak hein batean hark kofinantzatuak izatearen ondorioz. Mugimendu horiek ez dira aurrekontu-aldaketatzat hartuko.

Partida zer departamenturi dagokion, departamentu horren titularrak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena.

4. artikulua. Europar Batasuneko programen aurrekontu-aldaketak.

1. Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, eta Enpresen Sustapenerako zuzendari nagusiak txostena egin ondoren, zilegi izanen du beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak baimentzea, beharrezkoak direnean Europar Batasunak kofinantzatuak pro-

gramak eta proiektuak ahalik eta hobekien betetzeko ekitaldian zehar, Batzordeak hasierako dokumentuan onetsitakoari edo jarraipen batzordeek edo Batzordeak berak ondoren eginiko aldaketei jarraituz. Aurrekontu-aldaketak gastuen egoera-orrietan agertzen diren edozein motatako kredituen bidez finantzatu beharko dira.

2. Kreditu-aldaketak eragin zuzena badu Europar Batasunak kofinantzatu dituen proiektuak bil-tzen dituzten partidetan, aldeztatik Enpresen Sustapenerako Zuzendaritza Nagusiaren txostena beharko da. Salbuetsirik daude Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzak (LGENF) kofinantzatuak kredituei eragiten dieten aldaketak.

5. artikulua. Kreditu-zabalpenak.

1. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 47. artikuluko 1. apartatuko a) letratik g) letrara bitartekoetan aipatutako kredituez gain, zabalgarritzat joko dira, 2025eko ekitaldiari dagokionez, helburu hauetarako lehendik dauden partidak edo aipatu helburuetara bideraturik ekitaldian zehar sortu beharrekoak: terrorismoaren biktimak edo motibazio politikoko ekintzen biktimak aintzatestearen eta horiei erreparazioa ematearen ondorioz, indarreko legedian zehaztu bezala, onets litezkeen kalte-ordain, dirulaguntza eta maileguak emateko partida guztiak, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketari dagozkion partida guztiak ere.

2. Gainera, zabalgarriak izanen dira, 2025eko ekitaldirako, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxaron-zerrendak murrizteko neurriak finantzatzeko ekitaldian zehar sortu diren edo sortu behar diren partida guztiak, nahiz eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura ez egon. Partida horien izena itxaron-zerrendak izanen da.

3. Era berean, 2025. ekitaldirako zabalgarritzat joko dira lehendik zeuden edo ekitaldian zehar sortu beharko liratekeen partida guztiak, nahiz eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatutako eta araututako loturarik ez egon, foru lege honen 80. artikuluan ezarritako 2025eko inbertsio-programako inbertsioak finantzatzeko, eta PRIN25 izena izanen dute.

4. Aurrekoez gainera, honako hauek ere zabalgarritzat joko dira:

4.1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko partida hauek:

a) 100000-10000-4709-441100 partida, "AUDENASA. Merkataritza-politika" izenekoak.

b) 114001-13100-3101-923700 partida, "Interesak eta kreditu komisioak" izenekoak.

c) 114001-13100-3509-923700 partida, "Kontu korronte eta antzekoetako saldoengatiko ordain-saria" izenekoak.

d) 111002-11300-6002-923100 partida, "Lurrak eta natur ondasunak" izenekoak.

e) 111002-11300-6003-923100 partida, "Eraispinak" izenekoak.

f) 111002-11300-6020-923100 partida, "Instalazio berriko eraikinak eta obrak, eta ondare higiezinaren erreforma" izenekoak.

g) 111002-11300-6020-923104 partida, "Higieinei buruzko Plana. Administrazio bulegoak" izenekoak.

h) 111002-11300-6050-923100 partida, "Higiezinaren Plana. Eraikin eta obretako altzariak eta ekipamendua" izenekoak.

i) 111002-11300-8500-923100 partida, "Sektore publikoko akzioak erostea" izenekoak.

j) 151000-17300-2273-923400 partida, "Enkargua TRACASA Instrumental sozietateari. Tributuaren arloko informazio sistemetan datu fiskalak jasotzea eta integratzea" izenekoak.

k) 155005-155003-17800-3501-932100 partida, "Berandutze-interesak sarrera bidegabean eta zergen itzulketetan" izenekoak.

4.2. Lurralde Kohesiorako Departamentuko partida hauek:

a) 210001-21100-4609-942300 partida, "Toki erakundeentzako konpentsazioa toki tributuetako hobariengatik" izenekoak.

b) 220000-22000-6010-453300 partida, "Prezio-berrikuspena" izenekoak.

c) 220003-22200-2090-453200 partida, "Iruña-Logroño A-12 autobiararen kanona" izenekoak.

d) 220003-22200-2090-453202 partida, "Pirinioetako A-21 autobiararen kanona" izenekoak.

e) 220003-22200-6010-453305 partida, "Errepide sarearen kontserbazioa eta kontrol zentroa" izenekoak.

f) 220003-22200-6010-453306 partida, "Zoruak sendotzea" izenekoak.

g) 220004-22100-4700-452100 partida, "Nafarroako Ubidearen ureztaketaren kanona. Handitzearen 1. fasea" izenekoak.

4.3. Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko partida hauek:

a) 320000-32100-4809-261400 partida, "Etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntzak" izenekoak.

b) 320000-32100-7800-261400 partida, "Etxebizitzaren arloko jardueretarako dirulaguntzak eta subsidioak" izenekoak.

4.4. Hezkuntza Departamentuko partida hauek:

a) 400000-40100-3501-321100 partida, "Berandutze-interesak" izenekoak.

b) 400000-41000-1220-322000 partida, "Aldi baterako langileen ordainsariak" izenekoak.

c) 400000-41000-1800-322000 partida, "Zerbitzuen onarpenak, osagarri berriak, gradua, antzinasuna, eszedentzian egondakoen itzultzeak eta beste batzuk" izenekoak.

d) 400000-41000-1810-322000 partida, "Langileen ordainsariak, aurreko ekitaldietakoak" izenekoak.

e) 400000-41000-1820-322000 partida, "Epaia betearaztea, kalte-ordainak eta egonkortzeagatiko konpentsazioa" izenekoak.

f) 410000-41600-4609-322004 partida, "Unibertsitateaz kanpoko etapetako ikasleek espazioak erabiltzeagatiko transferentziak" izenekoak.

g) 430004-43500-6081-322000 partida, "Ikasliburuen doakotasunerako plana" izenekoak.

h) 430004-43500-7811-322000 partida, "Ikasliburuen doakotasunerako programa" izenekoak.

i) 410003 proiektukoak, "Irakaskuntza pribatu itundurako eta parekaturako dirulaguntzak" (kode ekonomikoa: 4811).

j) 430005-43500-2210-324100 partida, "Jantokiak" izenekoak.

k) 430005-43500-2230-324100 partida, "Eskola-garraioa" izenekoak.

l) 430005-43500-2230-324102 partida, "Hezkuntza bereziko eskola-garraioa" izenekoak.

m) 430005-43500-4800-324100 partida, "Eskola-garraiorako banakako laguntzak" izenekoak.

n) 430005-43500-4800-324102 partida, "Jantokietarako banakako laguntzak" izenekoak.

ñ) 420007-42900-4609-322100 partida, "Hitzarmenak udalekin, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko" izenekoak.

o) 430001 43100 4800 322E00 partida, "Lanbide Heziketako ikasleen praktikak: Gizarte Segurantzza" izenekoak.

4.5. Osasun Departamentuko partida hauek:

a) 54. programa-taldekoak, artikulua honetako 2. apartatua aipatutakoak izan ezik, honako kode ekonomiko hauei dagozkienak: 2210, 2213, 2214, 2215, 2216, 2286, 2287 eta 2500; bai eta 52. programa-multzoaren barruan 2215 kode ekonomikoari dagozkionak ere.

b) 540000-52000-1800-311100 partida, "Osasun-langileen lanbide karrera".

c) 540000-52000-1810-311100 partida, "Langileen ordainsariak, aurreko ekitaldietakoak" izenekoak.

d) 540000-52000-1820-311100 partida, "Epaia betearaztea, kalte-ordainak eta egonkortzeagatik konpentsazioa" izenekoak.

e) 540002-52833-2231-311100 partida, "Osasun-larrialdiak artatzeko eta anbulantzien Plana" izenekoak.

f) 540002 52833 2231 311103 partida, "Enkargua BIDEAN sozietateari. Osasun-garraioa" izenekoak.

g) 540002-52833-4809-311104 partida, "Protesiak, ortesiak eta desgaitasuna dutenentzako ibilgailuak" izenekoak.

h) 540005-52831-4809-313100 partida, "Farmazia-prestazioak" izenekoak.

i) 540005-52831-4809-313102 partida, "Xurgatzaileak eta beste osasun-produktu batzuk" izenekoak.

j) 540005-52831-4809-313103 partida, "Farmazia-prestazioak - koordinketa arautzea" izenekoak.

k) 543000-52200-6057-312802 partida, "Kirurgia-tresnak" izenekoak.

l) 543004-52214-2276-312700 partida, "Plasma zatitzeko lanak, farmakoak ekoizteko" izenekoak.

m) 545000-52400-6057-312803 partida, "Kirurgia-tresnak" izenekoak.

n) 546000-52500-6057-312803 partida, "Kirurgia-tresnak" izenekoak.

4.6. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko partida hauek:

a) 710000-71200-4700-412100 partida, "Lanaketak erazteagatik kalte-ordainak" izenekoak.

b) 710000-71200-4700-412107 partida, "Aparteko uholdeak direla-eta azpiegitura pribatuetan izaniko kalteak eta errenta-galera arintzeko laguntzak" izenekoak.

c) 710001-71200-4700-414210 partida, "Aseguru primen konpentsazioa Agroseguroren bitartez" izenekoak.

d) 710004-71300-2279-412205 partida, "Larrialdiko txertaketa ofizialak" izenekoak.

e) 710004-71300-7700-412200 partida, "Kalte-ordaina abereak epizootien ondorioz hil behar izateagatik" izenekoak.

f) 710006-71500-4700-414100 partida, "Nafarroako Ubidearen ureztaketan kanona" izenekoak.

g) 710006-71500-7609-414402 partida, "Aparteko uholdeak eta suteek kaltetutako nekazaritza-azpiegitura publikoetarako laguntzak" izenekoak.

h) 710006-71500-7700-414400 partida, "Aparteko uholdeak eta suteek kaltetutako nekazaritza-azpiegitura pribatuetarako laguntzak".

i) 710006-71500-7819-414100 partida, "Ureztatzaileen Elkarteen nekazaritza azpiegiturak konpontzea, aparteko uholdeengatik" izenekoak.

4.7. Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko partida hauek:

a) 810001-81100-4819-422203 partida, "Eskualdeetako plan estrategikoak" izenekoak.

b) 810001-81100-7819-422200 partida, "Eskualdeetako plan estrategikoak. Proiektuak" izenekoak.

4.8. Eskubide Sozietateko, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuko partida hauek:

a) 2600 kode ekonomikokoak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Legean aurreikusitako gizarte zerbitzu orokorren zorroa onetsi zuen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekre-

tuan ezarritako prestazio bermatuak finantzatzeko direnak eta 901003, 920005, 920006 eta 920008 proiektuetan daudenak, FSE+ funtsaren bidez kofinantzatutako partidak izan ezik.

b) 901002-91100-4809-212100 partida, “Kotizazio gabeko pentsioak” izenekoak.

c) 901002-91100-4809-231500 partida, “Errenta bermatua” izenekoak.

d) 901002-91100-4809-231502 partida, “Gizarte inklusiorako laguntza bereziak” izenekoak.

e) 901002-91100-4809-231505 partida, “Bizitzeko gutxieneko errenta” izenekoak.

f) 901003-91600-4809-231600 partida, “Prestazio ekonomikoak eta akonpainamendu soziala ingurune irekian gizarte-bazterketan daudenentzat” izenekoak.

g) 901003-91600-4609-231500 partida, “Etxerik gabeko pertsonentzako harrera-zerbitzua eta PSH gizarte-laguntzako beste programa batzuk” izenekoak.

h) 901003-91600-4609-231502 partida, “Oinarritzko laguntzako gizarte zerbitzuak” izenekoak.

i) 901001-91100-4819-143103 partida, “Nazioarteko larrialdiei berehalako erantzuna ematea” izenekoak.

j) 920004-93200-4809-231B00 partida, “Zerbitzuari lotutako laguntzak” izenekoak.

k) 920004-93200-4809-231B02 partida, “Zerbitzu pertsonalei erantzuteko laguntzak” izenekoak.

l) 920004-93200-4809-231B06 partida, “Desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentea izateko laguntzaileak kontratatzea” izenekoak.

m) 920008-93300-4809-231700 partida, “Babes sistemako gazteen autonomiarako baliabideak” izenekoak.

n) 920008-93300-4809-231702 partida, “Familientzako prestazio ekonomikoak” izenekoak.

ñ) 920008-93300-4809-231704 partida, “Kantopoko ikastetxeetako haurren kuotak” izenekoak.

o) 950001-96100-4709-241109 partida, “Enplegu-zentro berezietarako laguntzak” izenekoak.

p) 950001-96100-4809-241109 partida, “Autoenplegua sustatzeko laguntzak” izenekoak.

q) 950001-96100-4819-241104 partida, “Konferentzia sektoriala. Zailtasun gehiago dituz-

ten kolektiboen gizarteratze eta laneratze programetarako laguntzak” izenekoak.

4.9. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko honako partida hau:

A20003-A2300-6056-333100 partida, “Kultura-ondasunak eskuratzea” izenekoak.

4.10. Lehendakartzako, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuko partida hauek:

a) F20001-F2100-4819-112103 partida, “Doako laguntza juridikoa” izenekoak.

b) F30001-F3100-1001-921400 partida, “Lehendakari ohi, kontseilari ohi eta Nafarroako Gobernuko beste goi kargudun batzuentzako prestazioak” izenekoak.

c) F30001-F3100-1620-921400 partida, “Langileen arloko erabakiak aplikatzeko funtsa” izenekoak.

d) F30001-F3100-1800-921400 partida, “Zerbitzuen onarpenak, osagarri berriak, gradua, antzinasuna, eszedentzian egondakoen itzultzeak eta beste batzuk” izenekoak.

e) F30001-F3100-1800-921402 partida, “Ordainsarien igoera” izenekoak.

f) F30001-F3100-1800-921405 partida, “Osasun-langileen lanbide-karrera” izenekoak.

g) F30001-F3100-1810-921400 partida, “Langileen ordainsariak, aurreko ekitaldietakoak” izenekoak.

h) F30001-F3100-1820-921400 partida, “Epaiak betearaztea, kalte-ordainak eta egonkortzeagatiko konpentsazioa” izenekoak.

i) F30001-F3100-1820-921403 partida, “Lan istripuengatiko kalte-ordainak” izenekoak.

j) F30001-F3200-1614-211100 partida, “Erretiro aurreratuengatiko kalte-ordainak” izenekoak.

k) F40002-F4600-2140-921800 partida, “Ibilgailuen eta makineriaren konponketak eta mantentze-lanak” izenekoak.

l) F40002-F4600-2281-921800 partida, “Erregiak eta lubrifikatzaileak” izenekoak.

m) F41000-F4100-2274-132103 partida, “Genero indarkeriatik babesteko segurtasun zerbitzuak” izenekoak.

4.11. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko partida hau:

G10001-G1100-7455-322302 partida, "Kapital transferentziak NUPera: Medikuntzako eraikina" izenekoa.

II. TITULUA Langileria gastuak

I. KAPITULUA Jarduneko langileen ordainsariak

6. artikulua. Nafarroako Administrazio Publiko-
etako funtzionarioen eta estatutupeko langileen
ordainsariak.

1. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondo-
rioekin, Nafarroako Administrazio Publiko-
en zerbitzuko funtzionarioen eta estatutupeko langileen
ordainsariak gehikuntza izanen dute; hain zuzen
ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbi-
tzuko langileentzat 2025erako ezartzen duen
gehieneko gehikuntza orokorra. Horrek ez du
ezertan galaraziko beharrezkoak diren ordainsari-
doikuntzak egitea, beharrezkoa bada, halatan
ziurtatzeko ezen lanpostu bakoitzari esleitutakoek
behar bezalako zerikusia daukatela lanpostu
horren edukiaren zailtasun tekniko bereziarekin,
dedikazioarekin, erantzukizunarekin, arriskugarri-
tasunarekin edo nekagarritasunarekin.

2. Maila bakoitzaren hasierako soldatak urteko
zenbateko hau izanen du 2025ean:

Maila	Zenbatekoa (urtean eta eurotan)
A	30.247,00
B	25.445,84
C	21.108,36
D	18.383,54
E	16.170,42

7. artikulua. Nafarroako Administrazio Publiko-
etako lan-kontratudunen ordainsariak.

1. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondo-
rioekin, Nafarroako Foru Komunitateko Adminis-
trazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbi-
tzuko langile lan-kontratudunen ordainsariak haien
hitzarmen kolektiboan zehazten direnak izanen
dira, foru lege honetan funtzionarioentzat finkatu-
tako irizpideei jarraikiz.

2. Nafarroako gainerako administrazio publiko-
en zerbitzuko langile lan-kontratudunen ordainsa-
riak, berriz, administrazio publiko bakoitzak bere

aurrekontuetan ezartzen dituenak izanen dira,
betiere foru lege honetan funtzionarioentzat ezarri-
tako irizpideei jarraikiz.

8. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko
Administrazio eta haren erakunde autonomo-
tako izendapen libreko zuzendaritza-karguen
ordainsariak.

1. 60.417,28 euroko ordainsariak izanen dituz-
te 2025ean Nafarroako Foru Komunitateko Admi-
nistratio zerbitzuetako zuzendariak eta haren
erakunde autonomoetakoek (aurrekoekin pareka-
tuek), hamalau hilekotan banatuta, araudi indardu-
naren arabera legozkiekeen gradu, antzinasun
eta familia-laguntzako ordainsari pertsonalak jaso-
tzeaz gainera, bai eta, jatorrizko izendapenagatik
edo beren zerbitzu-ematearen baldintza berezien-
gatik, plantilla organikoan espezifikoki esleituta
dituzten ordainsari osagarriak ere. Horretarako, ez
da kontuan izanen lanpostuko osagarriaren jato-
rrizko ehunekoa, honenbesteko ordainsariaren
hasierako kalkuluan sartutakoa.

Zerbitzuetako zuzendariak beren lana erabate-
ko eskuragarritasunez eta dedikazio osoz eginen
dute.

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko
eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasu-
naren Institutuko izendapen libreko zuzendaritza-
karguen ordainsariak ondotik zehazten diren zenba-
tekoak izanen dituzte 2025ean, hamalau hilekotan
banatuta, araudi indardunaren arabera legozkiekeen
gradu, antzinasun eta familia-laguntzaren ordain-
sari pertsonalak jasotzeaz gainera:

a) Zerbitzu ez-asistentzialetako burutzak:
60.417,28 euro.

b) Nafarroako OdoI eta Ehun Bankuko
Zuzendaritza: 66.494,96 euro.

Baldin eta gaur egun Osasunbidea-Nafarroako
Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Osasun Publi-
koaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendaritza-
kargu horien titularren batek artikulua honetan jaso-
tako zenbatekoa baino gehiago jasotzen badu gaur
egun, aldeagatik konpentsazio pertsonal bat ordain-
duko zaio, kargu horretan diharduen bitartean.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administra-
zioan eta haren erakunde autonomoetan
zuzendaritza-karguetan aritzen diren izendapen
libreko langileen ordainsariak 6. artikuluan xedatu-
takoaren aplikazioak eragindako igoera bera izan-
nen dute.

9. artikulua. Nafarroako Gobernuo kideen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari goi kargudunen eta gainerako behin-behineko langileen ordainsariak.

1. Nafarroako Gobernu osatzen duten kideek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 35. eta 45. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuo kideek, 2025. urtean, ondoren zehazten diren urteko ordainsariak izanen dituzte, hamalau hilekotan banatuta, langile finkoak eta kontratadunak izanez gero kasuan kasuko zerbitzu harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu eta/edo antzintasun ordainsariez gainera:

2. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 35. eta 45. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuo kideek, 2025. urtean, ondoren zehazten diren urteko ordainsariak izanen dituzte, hamalau hilekotan banatuta, langile finkoak eta kontratadunak izanez gero kasuan kasuko zerbitzu harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu eta/edo antzintasun ordainsariez gainera:

– Nafarroako Gobernuo lehendakaria: 82.975,06 euro.

– Lehendakariordea, kontseilaria eta kontseilari-eleduna: 77.218,96 euro.

3. Lehendakariaren eta Nafarroako Gobernuo departamentuetako titularren kabineteetan goi kargudunaren izaera duten langileek ondoren zehazten diren urteko ordainsariak izanen dituzte 2025. urtean, hamalau hilekotan banatuta, langile finkoak eta kontratadunak izanez gero kasuan kasuko zerbitzu harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu eta/edo antzintasun ordainsariez gainera:

– Lehendakariaren aholkularia: 66.163,58 euro.

– Kontseilarien kabineteburua: 61.582,22 euro.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, zuzendari nagusiek 66.163,58 euroko ordainsariak izanen dituzte 2025. urtean, hamalau hilekotan banatuta, langile finkoak eta kontratadunak izanez gero kasuan kasuko zerbitzu harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu eta/edo antzintasun ordainsariez gainera.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 52.1

artikuluan ezarritakoari jarraikiz, erakunde publikoetako zuzendaritza-karguek ondortik zehazten diren ordainsariak izanen dituzte 2025. urtean, hamalau hilekotan banatuta, langile finkoak eta kontratadunak izanez gero kasuan kasuko zerbitzu harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu eta/edo antzintasun ordainsariez gainera:

a) Erakunde autonomo bateko zuzendari kudeatzailea, salbu eta ondoko b) letran xedatutakoa: 66.163,58 euro.

b) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak: 102.225,90 euro.

c) Erakunde autonomo bateko zuzendariordea: 60.417,28 euro.

d) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritza-karguak:

– Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzailea, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko kudeatzailea, Profesionalen zuzendaria, Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendaria eta Eriari Osasun Laguntza emateko Ataleko zuzendaria: 78.115,80 euro.

– Tuterako Osasun Barrutiko kudeatzailea, Lizarrako Osasun Barrutiko kudeatzailea eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko zuzendari asistentziala: 68.277,44 euro.

– Osasun Mentaleko kudeatzailea, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko zuzendariorde asistentzialak, Tuterako Osasun Barrutiko zuzendari asistentziala, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzako Oinarrizko Osasun Laguntzako eta Laguntzaren Jarraitutasunerako zuzendariordeak eta Nafarroako Larrialdietako zuzendariorde eta Hil ala Biziko Larrialdiei Arreta emateko zuzendari teknikoak, eta osasun barrutietako zuzendariordeak: 66.494,96 euro.

– Zerbitzu Zentraletako zuzendariordeak: 65.293,76 euro

– Profesionalen zuzendaria, Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendaria, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Osasun Zainketen zuzendaria eta Oinarrizko Osasun Laguntzako Zainketen, Etxeko Arretaren, Arreta Soziosanitarioaren eta Ekintza Komunitarioen zuzendariordea, Langileiaren eta Lan Harremanen Zuzendariordea, Administrazioaren, Zerbitzu Orokorren eta Trantsizio Ekologikoaren Zuzendariordea, Nafarroako Ospitale

Unibertsitarioko Kalitatearen, Prozesu Klinikoen eta Garapenaren Zuzendariordetza eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendariordetzak. 62.338,78 euro.

– Nafarroako Laguntza Soziosanitarioko Planaren koordinatzailea eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Osasun Zainketen zuzendariordeak: 56.484,54 euro.

6. Lehendakariaren eta Nafarroako Gobernuaren osatzen duten kideen kabineteetako gainontzeko behin-behineko langileek ondoren zehazten diren urteko ordainsariak izanen dituzte 2025. urtean, hamalau hilekotan banatuta, langile finkoak eta kontratadunak izanez gero kasuan kasuko zerbitzu harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu eta/edo antzintasun ordainsariez gainera:

– Lehendakariaren idazkaria: 40.851,16 euro.

– Kontseilariaren idazkaria: 37.236,08 euro.

– Kabineteko laguntzailea: 32.613,98 euro.

7. Aurreko apartatuetan araututako behin-behineko langileek, langile finko edo kontratadun ez direnek, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioei dagokien antzintasun saria jasoko dute, eta horretarako kontuan hartuko da behin-behineko lanpostuetan lanean emandako denbora.

8. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoan sartuta dauden Nafarroako Foru Komunitateko Administraziozko sozietate publikoetako zuzendari-tza-karguek, goi kargudunaren izaera dutenek, ordainsari hauek izanen dituzte 2025ean:

Zuzendari kudeatzaileentzat, urteko oinarrizko soldata gordina, hamalau hilekotan banatuta, 65.726,11 eurokoa izanen da. Urteko ordainsari hori doitu egingen da kudeatu beharreko enpresa publikoaren konplexutasunaren arabera, taula honi jarraituz:

SOZIESTATE MOTA	KONPLEXUTASUNAREN OSAGARRIA	URTEKO OINARRIZKO SOLDATA GORDINA, EUROTAN
D	% 0	65.726,11
C	% 10	72.298,70
B	% 30	85.443,93
A	% 55	101.875,45

Sozietateen sailkapena, motaren arabera, Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez ezarriko da.

9. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren fundazio publikoetako zuzendariak urteko ordainsari hauek izanen dituzte 2025ean, hamalau hilekotan banatuta:

– Miguel Servet Fundazioa: 65.293,81 euro.

– Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioa: 56.484,38 euro.

– Baluarte Fundazioa: 71.665,02 euro.

– Gizain Fundazioa: 66.163,63 euro.

- Miguel Indurain Fundazioa: 54.632,48 euro.

10. Nafarroako Gobernuaren kide den inork, ez eta Nafarroako Foru Komunitateko gainerako goi kargudunek ere, ez dute dieta pertsonalik jasoko inolako

entitate publiko edo pribatutik administrazio kontseiluen nahiz kide anitzeko inolako organoren bileretara joateagatik. Betetzen duten ordezkari-tzagatiko dietak jasotzen badituzte, ordaintzaile den sozietateak edo erakundeak dirua zuzenean sartuko du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kasuan kasuko aurrekontu- edo sozietate-kontuan.

11. Nafarroako Gobernuaren osatzen duten kideen, Nafarroako Foru Komunitateko Administraziozko goi kargudunen eta gainerako behin-behineko langileen ordainsariek 6. artikuluan xedatutakoaren aplikazioak eragindako igoera bera izanen dute.

II. KAPITULUA

Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboak

10. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak eguneratzea.

1. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, pentsio publikoek urte horretan duten igotza bera izanen dute Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioek, indarreko araudiaren arabera eguneratzeko eskubidea dutenek.

2. Pentsio publikoen arloko araudi indarduna aplikatuz, eguneraketa ez zaie aplikatuko jadanik aitortuta dauden edo etorkizunean aitortuko diren pentsioei, baldin eta, berek bakarrik nahiz haiei baturik, kasua bada, onuradun berak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuen zenbatekoa, gainditu egiten badute pentsio publikoetarako ezartzen den urteko gehieneko zenbatekoa.

11. artikulua. Arauak, aplikatzekoak zaizkionak Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemari atxikitako funtzionarioen eskubide pasiboen araubideari.

1. Martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legea indarrean jarri baino lehen indarrean zeuden xedapenei jarraituko die artikulua honetan aipatzen den funtzionarioen eskubide pasiboen araubideak. Erregulatze-soldata zehazteko, kontuan hartuko dira funtzionarioek foru lege horren eta hura betetzeko emandako behin-behineko ordainsari-erregelamenduaren aurreko sistemaren arabera jasotzen zituzten ordainsaririk handienak, ekitaldi bakoitzeko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeetan adierazitako portzentajeak gehiturik. Salbuespena izanen da lan istripuagatik edo gaixotasun profesionalagatik eskuratutako pentsioei buruz artikulua honetan xedatutakoa.

2. Aurreko apartatuan aipaturiko xedapenen ildotik, erretiro eta pentsioen ondorioetarako zerbitzualdia zenbatzeko, funtzionarioek zerbitzuan egiazki egindako urteak bakarrik hartuko dira kontuan. Urte horien barrenean sartuko dira Administrazio Publikoan egiazki emandako zerbitzu-urteak, betiere kasuko administrazioak aitortuak Foru Diputazioaren 1981eko urriaren 29ko eta

2001eko otsailaren 5eko Erabakiei eta apirilaren 14ko 21/1983 Foru Dekretuari jarraikiz.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo Nafarroako toki erakundeen montepioetakoren bati atxikitako funtzionarioek sortutako erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioen kasuan, foru lege honek indarra hartu ondoren jardunean daudela hiltzen badira edo erretiroa hartzen badute, pentsioen zio den egingizarainoko atzeraeraginez zenbatuko dira aipatutako funtzionarioek Gizarte Segurantzaren araubideetan kotizatutako aldiak, baldin eta aldi horiek ez badira gainjartzen aipatu montepioei kotizatutako beste batzuekin. Horren helburu bakarra izanen da zehaztea zein diren eskubide pasiboetarako hartzeko zenbagarriak eta kasuko pentsioa kalkulatzeko aplikatu behar den portzentajea edo kuota, kotizazio- edo zerbitzu-urteengatikoa.

Aurreko paragrafoan jasotako funtzionarioek sortutako erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioetarako, inola ere ez dira honako hauek zenbatuko: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren araubideetan kotizatutako aldiak, baldin eta aldi horiek, kasua bada beste batzuekin batuta, aipaturiko araubideetan pentsioetarako eskubiderik sortu badute. Salbuespen izanen dira SOVI delakoaren prestazioetarako eskubidea sortzen duen kotizazioa duten aldiak, zenbatu eginen baitira horiek.

Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo Nafarroako toki erakundeek dituzten montepioetakoren baten babesean dauden funtzionarioek alargun-pentsioa sortuz gero, bikotekide egonkorrek ere izanen dituzte eskubide pasibo horiek.

3. Artikulu honen 1. apartatuan xedatutakoa betetz, eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren aplikazio-esparruaren barnean dauden funtzionario publikoek 2025. urtean sortutako erretiroak eta pentsioak finkatzeko, honako hau hartuko da kontuan:

a) Eskubide pasiboetan eragina duten lansari kontzeptuen zenbatekoak 2025. urteari dagozkionak izanen dira, hau da, 1983. urtekoei geroko aurrekontuei buruzko foru legeek finkatutako gehikuntzak aplikatu ondoren sortzen direnak.

Salbuespen gisa, lan istripuak edo gaixotasun profesionalak eragindako ezintasunagatik erreti-

ro-pentsioen kasuan, bai eta lan istripua edo gaixotasun profesionala dela-eta hiltzearen ondoriozko alargun- edo umezurtz-pentsioenean ere, hartzeko erregulatuak osatuko dute erretiroa edo heriotza gertatu aurreko urtean kasuko funtzionarioak bere lanpostuagatik jasotako ordainsariak.

b) 1980ko urtarrilaren 29ko Parekatze Arautik eratorritako ordainsari-sistematik kanpo geratu ziren udal funtzionarioentzat, haren bigarren xedapen gehigarriko bigarren paragrafoan emandako ahalmenari jarraikiz, pasiboetan eragina duten ordainsari kontzeptuen zenbatekoa honako hau izanen da: funtzionario horientzako 1983ko zenbatekoari hurrengo urteetan izandako gehikuntzak aplikatzearen emaitza.

4. Funtzionarioek pentsio araubidearen finantzaketan parte hartuko dute 13/1983 Foru Legearen aurreko araudia aplikatuz atera den zenbatekoarekin, zenbateko horri ondorengo urteetako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legeetan ezarritako pentsio-igoerako porzentajeak gehiturik.

5. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Administrazio Publikoetako montepioen gutxieneko erretiro-pentsioa, bai martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sisteman jarraitzen duten funtzionarioena, bai aipatu foru legean aurreikusitakoari atxikitakoenena, 2024. urterako ezarritakoa izanen da, zeina 18.031,44 eurokoa baita, baina 2025era eguneratua, pentsio publikoek urte horretan oro har izanen duten igoera aplikaturik.

70 urte betetzen dituztenetik aurrera, honakoei ere aitortuko zaie arestiko paragrafoan ezarritako gutxieneko pentsioaren baliokidea den zenbatekoa jasotzeko eskubidea: beren borondatez erretiratu eta, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurretik zegoen eskubide pasiboen sisteman jarraituta, dagokien administrazio publikoan 30 urtetik beherako zerbitzualdi aitortua frogatzeagatik eguneratze-eskubiderik gabeko pentsioa sortu dutenei.

6. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, gutxieneko alargun-pentsioaren zenbatekoa izanen da ekitaldi horretarako ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldataren adinako urteko zenbatekoa.

7. Artikulu honen 6. apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko eskubide pasiboen sistema

aplikatuz emandako umezurtz-pentsioei, Nafarroako Administrazio Publikoaren montepioetako edozein kargura, zein bere erregelamenduan xedatutakoaren arabera, 1991ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarriak emandako testua oinarri harturik.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik baztertu egiten dira, beraz, aipatu 5/1991 Foru Legean ezarritako aldaketaren aurretik aplikatutakoa zen araudiaren arabera emandako umezurtz-pentsio guztiak, onuradunaren ezintasun egoerarengatik onartu zirenak izan ezik.

8. Foru Diputazioko funtzionarioen erretiroei eta pentsioei buruzko Erregelamenduen 8. artikuluko 3. apartatuan eta udal funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Erregelamenduen 10. artikuluan aipatzen diren umezurtz-pentsioak eta udal montepio partikularretan ezaugarri berak dituzten umezurtz-pentsioak onartu egiten dira, baldin eta pentsio horiek eskuratzeko bete beharreko baldintza guztiak betetzen badira pentsioa sorrarazten duen pertsona edo, bestela, alargun-pentsioa jasotzen duen ezkontidea edo bikotekide egonkorra hiltzen den egunean.

9. Nafarroako Administrazio Publikoetako montepioen alargun-pentsioak bateragarriak dira bai norberak egindako lanarengatik jasotako diru-sarrerekin bai erretiro-pentsioarekin.

10. Ezintasun iraunkorren deklarazioak, bai eta haren graduenak ere, berrikusten ahalko dira, baldin eta onuraduna 65 urtetik beherakoa baldin bada, dela egoera larriagotzeagatik dela hobetzeagatik, edo diagnostikoaren akatsaren ondorioz, betiere arau hauei jarraikiz:

a) Ezintasun gradua berrikusteko espedientea ofizios edo interesdunak eskatuta irekitzen ahalko da, eta Ezintasunak Baloratzeko Nafarroako Epaimahai Medikoak horri buruzko proposamen loteslea egiten du.

b) Ezintasun iraunkorreko gradu jakin bat deklaratu duen funtzionarioa gradu altuago batean birsailkatua izanez gero, dela egoera larriagotzeagatik dela diagnostiko-akats batengatik, kasuko pentsio-esleipenak eragina izanen du berrikuspen-espedientea ebatzi eta hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrera.

Birsailkapena diagnostiko-akats baten ondorio denean, eskubidea izanen du jasotzeko espedientea ebatzi arte jasotakoaren eta ezintasun

gradu altuagoa aitortuta jaso beharko zukeenaren arteko aldeak egiten duen zenbatekoa, lau urtera arteko mugarekin.

c) Aurreko apartatueta aipatzen den berrikuspenak Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 17ko eta 1972ko azaroaren 24ko erabakietan ezarritako eraginak izanen ditu. Erabaki horiek indarra izaten jarraituko dute foru lege honetan ezarritakoaren aurka ez doan guztian.

12. artikulua. Udal funtzionarioen montepioen finantzaketa.

1. Nafarroako Gobernuak ekarpena eginen du Nafarroako toki erakundeetako funtzionarioen pentsioak finantzatzeko, Udal Funtzionarioen Montepio Orokorrekoak direnen kasuan; ekarpen hori banatuko da Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren kudeaketatik 2024ko ekitaldian sortutako kostuen ordainketari dagokionez udal bakoitzari esleitu zaion kuotaren arabera.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak ekarpen bana eginen die Iruñeko, Tuterako eta Tafallako udalei, beraien montepioen kudeaketak 2024ko ekitaldian sortutako kostuen arabera.

3. Aurreko apartatueta ezarritako ekarpenen zenbatekoa Nafarroako Administrazio Publikoen

montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarria aplikatuta ateratzen dena izanen da.

4. Udal-funtzionarioen montepio orokorraren defizita, klase pasibo guztien prestazioei dagokiena, estaltzeko udalerrri bakoitzari esleitutako kuota kalkulatzeko, udalerrri bakoitzak defizita kalkulatzeko unean duen biztanle-kopuru ofizialarekiko proportzioan eginen da. Banaketa horretatik salbuetsita geratuko dira Iruñea, Tuterako eta Tafalla udalerrriak, Montepio propioa dutelako.

III. KAPITULUA Irakasleen ordainsariak

13. artikulua. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak diruz lagundutako eskola-jantokietan diharduten irakasleen ordainsariak.

Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako jantokiak arautzen dituen maiatzaren 29ko 58/2024 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, jantokiko administratzaile, arduradun edo zaintzaile lanak egiten dituzten irakasleek honako ordainsari gordin hauek jasoko dituzte benetan lan egindako egun bakoitzeko:

BAZKALTIAKOPURUA	JANTOKIKO ARDURADUNA EUROTAN	ADMINISTRATZAILEA EUROTAN	ZAINZAILE BAKOITZEKO EUROTAN
1-80	19,19	16,95	19,19
81-160	21,41	16,95	19,19
161-240	22,97	19,00	19,19
240 baino gehiago	23,76	21,77	19,19

Artikulu honetan ezarritako zenbatekoak eguneratuko dira Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak, kasuan kasuko aurrekontuei buruzko foru legeetan, eguneratzen diren ehuneko berean.

14. artikulua. Irakasleei prestakuntza ikastarok emateagatik ordainsaria jasotzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eta haren erakunde autonomoetako langileek konpentsazio ekonomikoa jasotzen ahalko dute Hezkuntza Departamentuak urtero egiten duen Irakasleen Prestakuntza Planean jasotako

prestakuntza-jardueraren bat emateagatik edo Hezkuntza Departamentuko zuzendaritza nagusiek edo Irakasleei Laguntzeko Zentroek zuzenean antolatutakoetakoren bat emateagatik, baldin eta lan hori beren lanalditik kanpo egiten badute. Ordainsari hauek izanen dituzte:

- Prestakuntza presentziala:

a.1 Ponentzia bakoitzeko, hots, aditu batek prestakuntza jardura batean ematen duen eskola ordu bakoitzeko, 62,55 euro ordainduko dira, gehienez.

a.2 Konferentzia bakoitzeko, halakotzat ulerturik aditu batek zientzia, teknologia edo gizarte gai

interesgarri bati buruz ematen duen jendaurreko hitzaldia, gutxienez 90 minutuko iraupenekoa, 381,91 euro ordainduko dira gehienez.

- Urrutiko prestakuntza:

b.1 Urrutiko prestakuntza jardueretan koordinatzaile telematikoko gisa parte hartzeagatik 1.107,55 euroko ordainsaria emanen da gehienez, guztira bost tutore koordinatzeagatik. Koordinatu beharreko tutoreak bost baino gutxiago baldin badira, ordainsaria proportzioan kalkulatu da. Koordinatu beharreko tutoreak bost baino gehiago baldin badira, koordinatzaile telematikoak 103,83 euroko ordainsaria jasoko du tutore bakoitzeko, bosgarren tutoretik aurrera.

b.2 Urrutiko prestakuntza jardueretan tutore telematikoko gisa parte hartzeagatik 49,60 euroko ordaina emanen da, gehienez, tutoretzapeko ikasle bakoitzeko.

2. Aurreko apartatuan adierazitakoa ez zaie aplikatuko Irakasleentzako Laguntza Zentroetan edo unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako prestakuntza jarduerak diseinatu eta garatzen dituzten unitate organikoetan destinoa duten irakasleei.

3. Artikulu honetan ezarritako zenbatekoak eguneratuko dira Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak, kasuan kasuko aurrekontuei buruzko foru legeetan, eguneratzen diren ehuneko berean.

15. artikulua. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ordainsariak eta osagarriak.

1. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan beren irakastordu guztiak ematen dituzten Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleei esleitutako irakaskuntzako osagarri berariazkoa Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunen kidegoko funtzionarioek jasotzen duten bera izanen da.

2. Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleek beren ordutegiaren parte bat Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan ematen badute, zentro horretan emandako lanaldi-portzentajearen proportzioan jasoko dute Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunei esleitutako irakaskuntzako osagarri berariazkoaren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoari esleitutakoaren artean dagoen aldea.

16. artikulua. Kilometroengatiko diru-ordaina, prestakuntza jardueretara joandako irakasleentzat.

Kilometroengatiko diru-ordaina jasotzeko eskubidea izanen dute hezkuntza-administrazioak

berariaz izendatuta Hezkuntza Departamentuko zuzendaritza nagusietako titularren ebazpen bidez deitutako prestakuntza-jardueretara joaten diren irakasleek, betiere eskubide hori berariaz jasotzen bada dagokion ebazpenean.

17. artikulua. Irakaskuntzako praktiketan dauden funtzionarioen ordainsariak.

Irakasle kidegoetan sartzeko eta igotzeko izan-gaiek, praktiketako funtzionario izendatuak izan ondoren, honako ordainsari hauek jasoko dituzte izaera horrek dirauen bitartean: betetzen duten lanpostuaren mailari dagokion oinarritzko soldata eta ordainsari osagarriak, antzintasun saria, graduari dagokion ordainsaria, familia-laguntza, bai eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioko administrazio-kontratudunentzat orokortasunez ezartzen den beste edozein ordainsari ere.

18. artikulua. Lanbide-gaitasunen ebaluazio, aitorten eta egiaztatze prozeduretan esku hartzen duten irakaskuntza publikoko langileentzako ordainsariak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko irakasleek, lanbide-gaitasuna egiaztatzeko prozeduretan aholkularitza edo ebaluazio faseetan esku hartzeko izendatutakoek, arlo horretan eskumena duten departamentuek dei eginda, ondotik aipatzen diren ordainsariak jasotzeko eskubidea izanen dute, abuztuaren 27ko 66/2014 Foru Dekretuan araututakoarekin bat, zeinak finkatzen baititu pertsonen lan-esperientziaren edo prestakuntza bide ez-formalen bidez lortutako lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko arauak eta horretaz arduratuko den antolaketa egitura:

a) Egiaztatze prozedurako aholkulariak:

– Izangai bakoitzagatik jaso beharrekoa, kasu hauetan:

Aholkaturiko 3 gaitasun unitate bitarte, 123 euro.

Aholkaturiko 4, 5 edo 6 gaitasun unitate, 153,75 euro.

Aholkaturiko 6 gaitasun unitate baino gehiago 184,50 euro.

– Lanbide arlo bereko kualifikazio gehigarria izateagatik osagarria, izangai berarentzakoa, 51,25 euro.

b) Egiaztatze prozedurako ebaluatzaileak:

– Izangai bakoitzagatik ebaluatzaile nagusi izatearen ordainsaria, honako kasu hauetan:

Ebaluatutako 3 gaitasun unitate bitarte, 133,25 euro.

Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun unitate, 169,13 euro.

Ebaluatutako 6 gaitasun unitate baino gehiago, 205 euro.

– Izangai bakoitzagatiko bigarren mailako ebaluatzaile izatearen ordainsaria, honako kasu hauetan:

Ebaluatutako 3 gaitasun unitate bitarte, 61,50 euro.

Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun unitate, 76,88 euro.

Ebaluatutako 6 gaitasun unitate baino gehiago, 92,25 euro.

– Ebaluazio batzordeko arduradun izateagatiko ordainsaria (taldeko)

Ebaluazio batzordeko burua, 205 euro.

Ebaluazio batzordeko idazkaria, 102,50 euro.

Ordainsari hauek konpentsazio gisa ezartzen dira, kontzeptu hauengatik: aholkularitza eta ebaluazio saioren prestaketa eta garapena; izangaiei zuzeneko arreta ematea; prozeduraren agiriaren kudeaketa; eta deialdia egiten duten administrazioekiko koordinazio lana.

2. Nafarroako Gobernuak baimena eman dezake, foru dekretuz, prozeduran esku hartzeagatiko ordainsaria eman dakien aholkulari eta ebaluatzaileez bestelako pertsona batzuei, baldin eta haien laguntza beharrezkotzat jotzen bada egokiro gara daitezen lanbide-gaitasuna egiaztatzeko prozedurak.

19. artikulua. Hezkuntza Departamentuaren mendeko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen ordainsariak.

Hezkuntza Departamentuaren mendeko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen irakaskuntzako osagarri berariazkoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 104. artikuluan ezarria (abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori), maila bakoitzari dagokion soldataren ehuneko hauetan finkatzen da:

a) Maisu-maistren kidegoa eta parekatuak: ehuneko 38,07.

b) Katedradunen kidegoak eta parekatuak: ehuneko 39,48.

c) Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa eta parekatuak: ehuneko 33,48.

d) Iraungitze bidean dagoen Lanbide Heziketa-ko irakasle teknikoaren kidegoa eta parekatuak: ehuneko 45,17.

e) Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoa eta parekatuak: ehuneko 45,17.

f) Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoa eta parekatuak: ehuneko 33,48.

g) Arte Plastikoetako eta Diseinuko lantegiko maisu-maistren kidegoa eta parekatuak: ehuneko 45,17.

h) Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen kidegoa eta parekatuak: ehuneko 33,48.

i) Hizkuntza eskola ofizialetako irakasleen kidegoa eta parekatuak: ehuneko 33,48.

j) Bigarren Hezkuntzako erlijio irakasleak: ehuneko 33,48.

k) Haur eta Lehen Hezkuntzako erlijio irakasleak: ehuneko 38,07.

l) Maisu-maistren kidegoko eta parekatuetako langileek, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren lehen xedapen iragan-korreen ezarritakoari jarraikiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lanpostuetara behin betiko edo behin-behinean atxikiak badira, Bigarren Hezkuntzako irakasle bati dagokiona jasoko dute irakaskuntzako osagarri berariazko gisa. Era berean, osagarri berezi bat jasoko dute, B mailako hasierako soldataren % 5,45ekoa.

20. artikulua. Irakasleen irakastorduak zehaztea.

Irakasle-lanpostuak ikasturte bakoitzaren hasieran dauden beharrezko arabera betetze aldera, eta baldin kasuan kasuko espezialitatean ez badago irakastordu nahikorik, unibertsitateaz kanpoko irakasleek beste irakaste-espezialitate batzuetan irakatsiz beteko dute beren ordutegia, Hezkuntza Departamentuak ezarritako kasuetan eta baldintzetan.

21. artikulua. Ikastetxe publiko berriak.

Hezkuntza Departamentuak zilegi izanen du ikastetxe publiko baten sorrera baino lau hilabete lehenago gehienez ere izendatzea irakaskuntzako zuzendaritza-karguak; horiek erregelamendu organikoetan ezarrita dauden eginkizunak beteko dituzte, bai eta Eskola Kontseiluari esleitutako eskumenak ere, hura eratzen den arte.

IV. KAPITULUA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko langileen ordainsariak

22. artikulua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko langileen guardiak egun berezietan.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutukoek guardiak egun berezietan egiten dituztenean, produktibitate-modulu aldakor bat jasotzen ahalko dute, guardiari dagokionaren zenbateko bera izanzen duena. 2024ko abenduan eta 2025eko urtarrilean, abenduaren 24a, 25a eta 31 eta urtarrilaren 1a, 5a eta 6a ordainduko dira, kontzeptu honen ordainsaria ematearren.

23. artikulua. Lanbide karrerako maila aitortua aplikatzea Osasun Sistema Nazionaletik etorritako langileei.

1. Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan lanpostu finkoa lortzen duten C eta D mailetakako fakultatiboei eta sanitarioei Osasun Sistema Nazionalerako beste osasun zerbitzu batean egiaztatutako karrera-graduak aitortzen zaizkie, espezialitate, lanbide kategoria edo titulazio-talde berari dagozkionak. Gradu horiek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile horien karrera profesionalerako sistema arautzen duen foru legedian eta hura garatzeko araudian ezarritakoaren arabera ordainduko dira.

2. Osasun Sistema Nazionalerako beste osasun zerbitzu batzuetatik iritsitako langileei, Osasun Departamentuko erakunde autonomoetan lanpostu bat zerbitzu eginkizunetan betetzen badute, Osasun Sistema Nazionalerako beste osasun zerbitzu batean egiaztatutako karrera-graduak aitortzen zaizkie. Gradu horien ordainsariak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun-langileen lanbide karrerako araudian ezarritakoaren arabera ordainduko dira.

24. artikulua. Aldi baterako kontratupeko medikuen eta fakultatibo espezialisten eskusibotasun araubidea.

2025ean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berezia arautzen duen 11/1992 Foru Legearen A.1 eta A.2.5 estamentuetako langileen aldi baterako kontratazioa dedikazio eskusiboaren araubidean egiten da, eta, kontratatutako profesionalak aukera izanzen du dedikazio ez-esklusiboaren araubidea

hautatzeko, kontratazioaren lehen egunetik hasita, hala nahi badu.

V. KAPITULUA

Bestelako xedapenak

25. artikulua. Lanpostuak birmoldatzea.

1. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar diren neurriak har ditzan, plantilla berregituratzeagatik edo eman beharreko zerbitzuak berrantolatzeagatik edukirik gabe gelditutako lanpostuak, hutsik ez daudenak, bestelako lanpostu bihurtzeko. Eginkizunen berresleipenak eta horren ondoriozko lekualdatzeak, maila beraren barnean, salbuespen kasuetan baino ez dira egiten, eta Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak berak zuzenean egiten ditu, sindikatuetakoa ordezkariari entzun ondoren eta ukitutako langileen adostasunarekin.

2. Lanpostu horiek maila bereko bestelako lanpostu batzuk izateko birmoldatzerik ez badago, salbuespen gisa baimena ematen ahalko da beste maila bateko lanpostuei dagozkien eginkizunak berresleitzeko, baldin eta ukitutako langileek horiek betetzeko lanbide kualifikazioa eta gainerako baldintzak betetzen badituzte. Esleipen berri hori aldi baterako izanzen da kasu guztietan, gehienez ere langilearen mailan atxiki edo birmoldatzea posible izan arte, eta beti bermatuko da langileak jaso egiten dituela aurretik betetzen zuen lanpostuari zegozkion oinarriko ordainsariak eta ordainsari osagarriak.

26. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

1. Orohar luzatzen dira, 2025erako, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1. artikuluko 1., 2., 3. eta 6. apartatuetan xedatuak.

Erretiroa hartzeko gehieneko adinari dagokionez aurreko paragrafoan aipatutako 1. artikuluko apartatuak funtzionario guztiei aplikatuko zaizkie, funtzionarioa atxikita dagoen gizarte-aurreikuspeneko sistema zein den ere, barne harturik Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemari atxikiak, bai eta araubide horri atxikiak ere.

2. Hala ere, eta salbuespen gisa, Osasun Departamentuak zilegi izanzen du bere zenbait langilearen zerbitzu aktiboa 2025ean zehar luzatzea zerbitzuaren beharregatik eta profesionalik eza-

rengatik; betiere, arrazoi horiek behar bezala justifikatu beharko dira. Halatan, zilegi izanen da zerbitzu aktiboaren luzapena baimendu dakien, Gizarte Segurantzak xedaturiko legezko erretirorako adinera iritsi ondoren, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berriazko erregimenari buruzko 11/1992 Foru Lege Arau-emaileko A.1 eta A.2.5. estamentuetako profesional fakultatiboei, baldin eta norbere espezialitateko kontratazio-zerrenda irekita badago. Era berean, baimena ematen ahalko zaie estamentu horietako profesionalei, laguntza-zerbitzuko edo laguntza-ataleko buruaren eginkizunak betetzen ari direnean, baldin eta dagokion espezialitateko kontratazio-zerrenda irekita badago eta aldi baterako kontrataziorako izangairik ez badago. Luzapena baimentze aldera inguruabar hori egiaztatzeko momentua izanen da legezko erretirorako ezarrita dagoen data iritsi baino hilabete lehenago.

Luzapena urtebeterako eginen da, eta luzagarria izanen da baimen-ematearen baldintzei eutsiz gero, interesdunak horretarako eskaera aurretiaz eginik eta hirurogeita hamar urteko adina mugatzen harturik.

27. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoek deitutako hautapen prozesuei dagozkien xedapenak.

1. Nafarroako Administrazio Publikoei ahalmena ematen zaie Administrazioan sartzeko edo bertako lanpostuak betetzeko hautapen prozesuen deialdietako eskabideak eta gainerako dokumentazioa baliabide elektronikoen bidez aurkez daitezela eskatzeko.

2. Aurreko apartatuan aipatutako hautapen prozesuetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epeak, egunetan adierazitakoak, egun naturalekoak direla ulertuko da beti.

28. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoek aldi baterako kontratazio-prozesuetan egiten dituzten deialdiei buruzko xedapenak.

1. Nafarroako Administrazio Publikoei ahalmena ematen zaie, aldi baterako kontratazio-prozesuetan, bitarteko telematikokoak eta elektronikokoak erabil ditzaten eskabideak aurkezteko, hautagaiak deitzeko eta kontratuak hautatzeko.

2. Kasu horretan, deia Administrazio Publikoaren webgunean iragarki publiko bat argitaratuz eginen da. Iragarki horretan, deitutako izangaiak eta eskainitako kontratuak argitaratuko dira, eta eskainitako kontratuak modu elektronikoa hautatzeko epea adieraziko da.

29. artikulua. Lan eskaintza publikoak onesten dituzten foru dekretuetan jasotako lanpostuen betekizunak aldatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko eta haren erakunde autonomoetako lan eskaintza publikoak onesten dituzten foru dekretuetan jasotako lanpostuen betekizunak aldatzen ahalko dira kasuko foru dekretua onetsi ondoren, eta administrazioan sartzeko kasuko deialdiaren datan plantilla organikoan agertzen direnei jarraituz eskainiko dira lanpostuak.

30. artikulua. Nafarroako administrazio publikoek deitutako enplegua egonkortzeko prozesuak.

Enplegu Publikoan dagoen Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean ezarritakoaren arabera deitutako enplegua egonkortzeko prozesuak 2024ko abenduaren 31n amaituko dira, hargatik eragotzi gabe, Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileen arloan aplikatzekoa den berriazko araudiarekin bat, bidezko diren izendapen osagarriak egitea.

31. artikulua. Unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako lan publikoaren eskaintza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko unibertsitateaz kanpoko irakasleen lanpostuak, erretiroaren, heriotzaren, ukoaren edo lanpostu-erreserbarik ez dakarren beste edozein egoera administratiboren ondorioz hutsik gelditzen direnak, automatikoki esleituko zaizkio plantilla organikoan jatorriko irakasleen kidegoari edo lanpostuari, lanpostuen gainerako ezaugarriak zehaztu gabe.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko unibertsitateaz kanpoko irakasleen lan publikoaren eskaintzetan ezarriko da irakasleen kidego edo lanpostu bakoitzeko zenbat lanpostu barne hartzen dituzten guztira. Enplegu eskaintza horietan sartutako lanpostuen ezaugarriak, eta betiere espezialitatea eta hizkuntza, plantilla organikoa aldatzeko foru dekretu batean ezarriko dira, sarre-rako hautapen deialdia egin aurretik.

3. Langileak hautatzeko organoetako kideak izendatzeko (aipatuta azaltzen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen hautapenari eta lanpostuen betetzeari begira neurriak ezartzen dituen maiatzaren 4ko 11/2022 Foru Legean), irakasle kidegoetarako sarbideari buruzko Estatuko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Lehentasunez, hautaketa-prozesuaren xede den irakasle-lanposturako izendatutako irakasle funtzionarioek osatuko dituzte organo horiek. Dago-kion lanpostuan langile nahikorik ez badago, irakasleen kidegoetako edo antzeko lanpostuetako funtzionarioak izendatuko dira.

32. artikulua. Hezkuntza-laguntzako espezialisten kontratazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloko neurriak onesten dituen irailaren 16ko 10/2020 Foru Lege Dekretuaren 2.4 artikuluan aipatzen den aldi baterako aldia igarota, Hezkuntza Laguntzako espezialisten lanpostua aldi baterako betetzen ahalko dute C mailako/taldeko lanpostuetara sartzeko eskatzen den titulazio generikoa duten izangaiek. Nolanahi ere, lehentasuna izanen dute Gizarteratzeko Goi Mailako teknikari titulua dutenek edo, hala badagokio, Batxilergo titulua edo hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretarako profesionaltasun-ziurtagiria dutenek.

33. artikulua. Unibertsitateaz kanpoko irakasleen eta administrazio-araubidean kontratatutako ikastetxeetako laguntzako langileen erretiroa.

Salbuetsita geratzen dira Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko premiazko neurriei buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1.1 artikuluan xedatutakotik ikasturte osoko premian administrazio-araubidean kontratatutako irakasleak eta ikastetxeetako laguntzako langileak, baldin eta nahitaezko erretiroa hartzen dutenean edo nahitaezko erretiroa hartzeko adina betetzen duten ikasturtea amaitzean beren aurreikuspen sozialeko sistemaren pentsio baterako eskubidea sortzeko ezarritako gabealdia osatu ez badute, bai eta pentsio osoa jasotzeko kotizazio-urteak bete ez dituztenak ere. Irakasleak ikasturte osoko premietarako kontratatzen ahalko dira kidego, espezialitate eta hizkuntza berean eta ikastetxe berean, betiere etenik gabe eta helburu horietarako aldiak osatu arte, gehienez ere hirurogeita hamar urte bete arte. Ikastetxeetako laguntzako langileak ikasturte osoko beharretarako eta ikastetxe berean kontratatzen ahalko dira, betiere etenik gabe eta helburu horietarako aldiak osatu arte, gehienez ere hirurogeita hamar urte bete arte.

34. artikulua. Hezkuntza Departamentuari atxikitako langileen betebeharra Administrazioarekin harreman telematikoia izateko.

Hezkuntza Departamentura atxikitako langileek Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoen

bidez izan beharko dituzte harremanak harekin, enplegatu publiko izateagatik egiten dituzten izapide eta jarduketetarako; horretarako, berariaz adierazi beharko dute zer helbide elektronikotan egin behar diren jakinarazpenak.

III. TITULUA Finantza-eragiketak

I. KAPITULUA Abalak eta maileguak ematea

35. artikulua. Abalak eta maileguak ematea.

1. Nafarroako Gobernuak abalak edo antzeko beste berme batzuk ematen ahalko ditu, gehienez ere 36.000.000 euro eginen dutenak.

Era berean, aurreko paragrafoko mugaren barruan, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari baimena ematen zaio Nafarbide, el Camino de los Navarros SL sozietate publikoari gehienez ere 16.000.000 euroko abal bat emateko.

2. Enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak edo antzeko beste berme batzuk ematen ahalko dituzte, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrak proposatuta, eta gehienez ere 30.000.000 euro eginen dute.

Baimena ematen zaie Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoei 2025ean abal-eragiketa berriak edo antzeko beste berme batzuk emateko Nafarroako Natura Parkea SA sozietateari, gehienez 2.442.354,00 euroko zenbatekoan, artikulua honetan ezarritako muga barruan.

3. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen abalen edo antzeko beste bermeen gehieneko arrisku bizia 66.000.000 eurokoa izanen da. Enpresa-entitate publikoen, fundazio publikoen eta sozietate publikoen kasuan, berriz, gehieneko arrisku bizia 85.000.000 eurokoa izanen da.

4. Enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek maileguak ematen ahalko dituzte, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrak proposatuta, eta gehienez ere 17.000.000 euro eginen dute.

5. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82 ter artikuluan

ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen maila-geuen gehieneko arrisku bizia 99.000.000 eurokoa izanen da. Enpresa-erakunde publikoen, fundazio publikoen eta sozietate publikoen kasuan, berriz, gehieneko arrisku bizia 125.000.000 eurokoa izanen da.

6. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak behar diren prozedurak ezarriko ditu, araudiak finantza zuhurtziaren printzipioari dagokionez ezartzen dituen mugak betetzen direla bermatzeko. Printzipio hori Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan zehazturik dago.

II. KAPITULUA Zorpetzea

36. artikulua. Zor Publikoa jaulki edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena.

1. Zorpetze-eragiketak egiteko baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, muga honekin: Europako Kontuen Sistemaren arabera (SEC 2010), Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren azpisektorea osatzen duten entitateen 2025eko abenduaren 31ko saldo bizia ez izatea 2025eko urtarrilaren 1ekoa baino 81.840.374 euro handiagoa (BPGaren % 0,3ko defizit aurreikusia- ren finantzaketa).

2. Artikulu honetako lehen apartatuan ezarritako muga aldatzen ahalko da murrizten denean kitatzeke dagoen zorpetze garbiaren maila, dela aplikatu direlako Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 32. artikulua eta hura garatzeko neurri bereziak, aurrekontu-superabitarekin lotutakoak, dela finantzatutako defizit erreferentzia handiagoa delako egiazki izan den defizita baino, Ogasun Ministerioaren adostasunarekin eta Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordeari entzun ondoren.

3. Era berean, artikulu honetako lehen apartatuan ezarritako muga gainditzen ahalko da baldin eta hasiera batean aurreikusitakoa baino defizit handiagoa finantzatzen bada, eta gainera zenbaterako hori finantzatzeko beharrezkoa den zenbatekoan baino ez. Gainditzen ahalko da, halaber, Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak hitzar litzaketan bestelako zorpetze-eragiketak egiteko, Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordeari entzun ondoren.

4. Aurreko apartatueta jasotako zorpetze-eragiketen jaulkipena eta, kasua bada, formalizazioa, eragiketa batean edo batzuetan gauzatzen ahalko dira, eta 2025eko ekitaldiaz harago ere berandutzen ahalko dira.

5. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak behar den zorpetze-estrategia egokituko du, baimentzen den gehieneko zorpetze-bolumena ez dadin izan Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak aurrekontuen egonkortasunari buruzko araudiaren barruan adostutako mugatik gorakoa.

6. Nafarroako Gobernuak, hiru hilabete behin, aurreko apartatueta aurreikusitako zorpetze-eragiketen jaulkipen edo formalizazio guztien berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari.

37. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren sektoreko gainerako entitateen zorpetzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoaren sektorean Europako Kontuen Sistemako irizpideen arabera sartuta dauden entitateek Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren baimena lortu beharko dute beren zorpetze-eragiketak formalizatu aurretik, eta erabat deusezak izanen dira baimen hori gabe hartutako erabakiak.

Hiru hilabete behin, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zorpetze-eragiketa horietarako baimen guztien berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari.

2. Aurreko apartatuko entitateei baimenduko zaie gehieneko zorpetze bolumenak ez ditugaindituko Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak aurrekontuen egonkortasunari buruzko araudiaren barruan adostutako mugak.

3. Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren entitateetako arduradunek Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eskatzen dizkien formatu eta epeetan eman beharko dute informazioa, Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak aurrekontu-egonkortasuna dela-eta adostutako konpromisoak betetzeko.

IV. TITULUA Toki erakundeak

38. artikulua. Ohiturazko elkarte inbertsioetarako dirulaguntza eta onurak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Ogasun Publikoaren kargura ezarritako ekarpenak eta gainerako onurak jasotzen ahalko dituzte Errege Bardeko Komunitateak eta Erronkariko, Zarai-

tzuko eta Aezkoako batzarrek, beren organo eskudunek onesten dituzten inbertsioetarako.

V. TITULUA Aurrekontuen kudeaketa

39. artikulua. Aurreikusitako diru-sarrera handiagoen bidez finantzatzeko diren aurrekontu-aldaketak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen II. tituluko I. kapituluko 2. atalean ezarritakoari jarraituz, kreditu-sorrierak dira kredituak handitzen dituzten aurrekontu-aldaketa batzuk, hasierako aurrekontuan aurrekusi gabekoak edo aurreikusitakoak baino handiagoak diren diru-sarrera jakin batzuen ondoriozkoak.

Salbuespen gisa, beste administrazio edo entitate publiko batzuek finantzatzeko gastuak direnean, kredituak handitzen ahalko dira aurrekontuko gastuen egoera-orrian dagokion diru-sarrera gertatu gabe, baldin eta dokumentuz frogatzen bada funtsak jarri behar dituen entitatearen edo administrazioaren finantzaketa konpromisoa, kasu hauetan:

- a) Langileria-gastuei aurre egiteko beharrezkoak direnean.
- b) Helburutzat prestazio pertsonal edo sozialak dituzten aldizkako dirulaguntzei dagozkienean.
- c) Finantzaketa diru-itzulketa baten bidez jasotzen duten programei dagozkienean. Egiazki izandako gastuek frogatuta egon beharko dute.
- d) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Planeko jarduketak finantzatzea helburu duten ekarpenak direnean.
- e) Beste kasu batzuetan; behar bezala frogatuta eta Nafarroako Gobernuak baimenduta egon beharko dute, eta aurrekontuen arloko eskumena duen departamentuak txostena egina izan beharko du.

40. artikulua. Gastu konpromisoak etorkizuneko aurrekontuen kargura.

1. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du urte anitzeko gastu konpromisoak hartzeko baimena ematea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak baimendutako mugak eta urteko zenbatekoak gaindituz, kasu hauetan:

a) Etxebizitza babestuen sustatzaileei, eskurtzaileei, erabiltzaileei eta adjudikaziodunei dirulaguntzak emateko, eta etxebizitzak birgaitzeko,

baldin eta ez badira gainditzen aurreko ekitaldian helburu horretarako ezarritako zenbatekoak.

b) Europar Batasunak eta/edo Estatuko Administrazio Orokorrek kofinantzatzen dituzten planak, programak eta ekimenak aurrera eramateko, bai eta haietatik eratorritako betebeharreri aurre egiteko ere, bost urte baino gehiagoko plangintza eduki behar dutenean.

c) Enpresek I+G+b proiektuak finantzatzeko hitzartzen dituzten kreditu edo maileguen interesetarako hobari gisako laguntzak emateko, eta zentro teknologikoei eta azpiegitura zientifiko eta teknologiko bereziei laguntzak emateko.

d) Otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuak ezarritako dirulaguntzak emateko. Dekretu horren bidez zenbait neurri ezartzen dira, 2001eko martxoaren 8ko eta 2001eko uztailaren 31ko 76/2000 eta 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako langileak laneratzen laguntzeko eta haietzako laguntza bereziak ezartzeko.

e) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan hezkuntza-itunak berritzeari buruz ezarritakoa betetzeko beharrezkoak direnak.

f) Toki erakundeei laguntzak eman behar zaizkienean bakoitzaren udal plan orokorrak hirigintzako araudira egokitzeko.

g) Ondasun higiezinaren errentamendua.

2. Hezkuntza Departamentuak eskola-garraioa eta eskola-jantokien zerbitzua kontratatzen ahalko ditu, xede horrekin hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura gastu konpromisoak hartuta, betiere konpromiso horiek aurrekontu-ekitaldia ez den urte-aldi bati badagozkio, ikasturteko beharrei erantzunez.

3. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak bekak eta laguntzak ematen ahalko dituzte, xede horrekin hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura gastu-konpromisoak hartuta, betiere konpromiso horiek aurrekontu-ekitaldia ez den urte-aldi bati badagozkio, ikasturteko beharrei erantzunez.

41. artikulua. Funts-mugimenduak, ordainsarien igoseraren ondorioz.

Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko titularrak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egiteko "Ordainsarien igoera" izeneko F30001-F3100-1800-921402 partidaren kargura, 6., 7., 8. eta 9. artikuluetan ezarritako ordainsari igoerak era-

gindako gastua zer partidatan egozten den, partida horiek finantzatzeko xedez.

42. artikulua. Funts-mugimenduak, langileak hartzeagatik aldi baterako kontratatu ezin diren lanpostuen lan publikoaren eskaintzaren ondorioz.

Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko titularrak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egiteko "Kontratatu ezin diren lanpostuen lan publikoaren eskaintza" izeneko F30001-F3100-1800-921404 partidaren kargura, langileak hartzeak eragindako gastua zer partidatan egozten den, partida horiek finantzatzeko xedez.

43. artikulua. Funts-mugimenduak baimentzea Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusian osasun-langileen lanbide-karrerako aurrekontuko partiden kargura.

Funtzio Publikoko Zuzendari Nagusiak baimena eman dezake funtsak mugitzeko "Osasun-langileen lanbide-karrera" izeneko F30001-F3100-1800-921405 eta "Osasun-langileen lanbide-karrera" izeneko 540000-52000-1800-311100 aurrekontu-partiden kargura, finantzatze aldera aldi baterako kontratupeko osasun arloko langile fakultatiboak eta diplomadunei lanbide-karrerarako eskubidea eta lanbide-karreraren ondorioetarako aldi baterako kontratualdian emandako zerbitzuak aitortzearen ondoriozko gastuaren egozpena duten partidak, bai eta finantzatze aldera langile ez-fakultatibo eta ez-diplomadunen lanbide-karreraren ondoriozko gisa foru lege ezarritako gastuaren egozpena duten partidak ere. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eta 44.etik 50.era bitartekoetan ezarritako mugak ez dira bete beharrekoak.

44. artikulua. Erakunde sindikalen funtzionamendu-gastuaren konpentsazioa Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen esparruan.

F30001-F3300-4819-921302; 410005-41700-4819-321100 eta 540000-52000-4819-311100 partiden bidez (hirurak "Erakunde sindikalen funtzionamendu-gastuen konpentsazioa" izenekoak), erakunde sindikalen berezko jarduna egiteko beharrezko diren gastuak finantzatzeko dira, gastu horiek edozein motatakoak direla ere.

Partida bakoitzeko kreditua dagokion eremuko erakunde sindikalen artean banatuko da, azken hauteskunde sindikaletan lortutako botoen proportzioan.

45. artikulua. Funts-mugimenduak, Ondare Zerbitzuko obren, Higiezin buruzko Planaren eta altzarien gastuen ondorioz.

Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiko titularrak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egiteko partida hauen artean: 111002-11300-6020-923104 partida, "Higiezin buruzko Plana. Administrazio bulegoak" izenekoak, 111002-11300-6020-923100 partida, "Instalazio berriko eraikinak eta obrak, eta ondare higiezinaren erreforma" izenekoak, eta 111002-11300-6050-923100 partida, "Higiezin buruzko Plana. Eraikinetako eta obretako altzariak eta ekipamendua" izenekoak.

46. artikulua. Funts-mugimenduak interesengatik.

Ekonomia - Next Generation Zuzendaritza Nagusiko titularrak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egiteko interesak eta bestelako gastu finantzarioak ordaintzera bideratutako partiden artean, bai eta gaitu behar diren gainerako partiden artean ere, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura, horiek gastuen sorrera zorra, maileguak, diruzaintzako eragiketak edo kontuetako saldoak izan.

47. artikulua. Toki erakundearen Partaidetza Funtzaren funts-mugimendua.

1. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu toki erakundeek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtseko partiden artean, eta aurrekontu-partidak sortu funts horren barruan, kapital transferentzien arlokoen kasuan, beharrezkotzat jotzen denean.

2. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtseko partiden artean, eta haren barruan aurrekontu-partidak sortu, transferentzia arruntan bidez, beharrezkotzat jotzen denean.

48. artikulua. Funts-mugimendua ikasliburuen doakotasunerako plana finantzatzeko.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira ikasliburuen eta hezkuntzako materialaren doakotasunerako plana finantzatzera bideratutako aurrekontu-partiden artean edo gaitu beharko diren partiden artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007

Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura, haiek behar bezala finantzatzeko. Arlo horretan eskumena duen Hezkuntza Departamentuko zuzendaritza nagusiko titularrak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena.

49. artikulua. Garraio-gastuen eta eskola-jantokiaren arteko funts-mugimendua.

Arlo horretan eskumena duen Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusiak baimena ematen ahalko du eskola-garraioren partiden eta behar bezala gauzatzeko gaitu behar diren partiden artean funts-mugimenduak egiteko, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

Era berean, eskola-jantokietara bideratutako partiden eta behar bezala gauzatzeko gaitu behar diren partiden arteko funts-mugimenduak baimentzen ahalko ditu, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

50. artikulua. Funts-mugimendua ikastetxe publikoen eraikuntzara eta obretara bideratutako partiden artean.

Hezkuntza Departamentuko Langileriaren eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiko titularrak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egiteko ikastetxe publikoetan eraikuntzara eta obretara bideratutako partiden eta xede horretarako gaitu beharko direnen artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

51. artikulua. UHUN-Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren ikastetxe elkartuen aurrekontu-zuzkidura.

UHUNen Iruñeko eta Tuterako ikastetxe elkartuen finantzaketarako transferentzia arruntak, oro har, hiru hilabeteko aurrerapenarekin eginen dira.

52. artikulua. Itundutako ikastetxeen eta paretuen sostengua.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 117. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren diru kopurua, 2025. urterako, laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa izanen da, itundutako eta diruz lagundutako ikastetxeen sosten-

gurako funts publikoen zenbateko globala banatzeari dagokionez.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio, irakaskuntza itunduaren sektorearekin negoziatu ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aldeko txostena eman ondoren, laugarren xedapen gehigarriko modulu ekonomikoak eta ratioak eta artikuluko honen bosgarren apartatua finkatutako zenbatekoak aldatzeko, bai eta aldatetaren eraginkortasun eguna ezartzeko ere.

Irakaskuntzako langileentzat laugarren xedapen gehigarrian jasotako ordainsariei buruzko aurreikuspenek 2025eko urtarrilaren 1etik hasita jarriko dira indarrean, irakaskuntza pribatuaren hitzarmen kolektiboak noiz izenpetzen diren, horretan eraginik izan gabe. Administrazioak konturako ordainketak onartzen ahalko ditu enpresaburuen elkarte guztiek espresuki eta batera horrela eskatu eta sindikatuak esaten dutena entzun ondoren, kasuan kasuko hitzarmena izenpetu arte; konturako ordainketa horiek 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute eragina.

“Bestelako gastuak” eta, hala balitz, “langileak eta gastu espezifikoak” xede dituen moduluko osagaiak –laugarren xedapen gehigarrian jasotakoak– 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

Administrazioak, ordainketa eskuordetuaren bidez, zuzenean ordainduko ditu irakasleen soldatetarako adierazita dauden zenbatekoak, karga sozialak barne, irakasleen eta dagokien ikastetxe-ko titularraren arteko lan harremana ukatu gabe.

“Bestelako gastuak” eta, hala badagokio, “langileak eta gastu espezifikoak” ataletako zenbatekoak ikastetxe itunduei ordainduko zaizkie, eta horiek ikasturte bakoitzaren amaieran justifikatu beharko dute aplikatu direla, kontuan hartuta hezkuntza bereziko unitateen “langileak eta gastu espezifikoak” atalean gutxienez laguntzaile bat sartu behar dela, Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 20ko 50/2019 Foru Aginduan aipatzen dena.

“Gastu aldakorak” atala osatzen duten zenbatekoen banaketa eginen da itunen araubideari buruzko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

2. Hezkuntza Departamentuko Langileriaren eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiko titularrak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egiteko “Irakaskuntza pribatu itundurako eta pareturako dirulaguntzak” izeneko 410003 proiektuan (kode ekonomikoa: 4811) zabalgarritzat jota-

ko partiden eta gaitu beharko direnen artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

3. Egun, Nafarroan irakasten ez direnez bera-riazko Lanbide Heziketako titulu guztiak, Hezkuntza Departamentuak behin-behinekoz finkatuko ditu 2025-2026 ikasturtean lehenengo aldiz ezarri-ko diren eta laugarren xedapen gehigarrian sarturik ez dauden oinarriko, erdi edo goi mailako hezike-ta zikloetako modulu ekonomikoak, eta aipaturiko xedapen gehigarri horretan sartutakoak behin-behinekoz aldatzen ahalko ditu; aldaketa horiek 2025-2026 ikasturtearen hasieran izanen dituzte ondorioak, haien ezarpena zein den ikusita.

4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloa, Batxilergoa, oinarriko, erdi edo goi mailako heziketa zikloak eta Oinarriko Lanbide Heziketa ezarri dituzten ikastetxe itunduei finantzaketa emanen zaie Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 2.2 artikulua aipatzen dituen hezkuntza-, psikopeda-gogia- eta lanbide-orientazioko zerbitzu espeziali-zatueterako. Finantzaketa hori honako propor-tzioan eginen da: eginkizun horietan aritzeko gai den profesionalaren lanaldi oso bat, aipatu hezkuntza maila horietako 25 unitate itunduko. Hortaz, ikastetxe itunduek eskubidea izanen dute aipatu profesionalaren lanaldirako finantzaketa jasotzeko, maila horietan itunduta daukaten unita-te kopuruaren arabera.

5. Goi mailako heziketa zikloetako itun berezia partziala izanen da; beraz, ez baita derrigorrezko maila, goi mailako heziketa zikloen irakaskun-tzarako izenpetzen diren itun berezi partzialen araubideari esleitzen zaizkion funts publikoetatik lorturiko finantzaketaren osagarri gisa, arauturiko irakaskuntzaren kontzeptu gisa soilik, hau izanen da ikasleengandik jaso beharreko zenbatekoa: 36 euro ikasle eta hileko, hamar hilabetez, 2025eko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta 2025eko irailaren 1etik urte bereko abendu-aren 31ra arte; horretatik kanpo daude lantokiko lanbide prestakuntzakoak baizik ez den kurtso batean matrikulatuta dauden ikasleak. Horiek 32,45 euro ordainduko dute ikasle eta hileko, 2025-2026 ikasturteko lantokiko lanbide prestakuntzak irauten duen hiru hilean.

Online egiten diren goi mailako heziketa zikloetako itun berezia partziala izanen da; beraz, ez baita derrigorrezko maila, goi mailako online hezi-keta zikloen irakaskuntzarako izenpetzen diren itun berezi partzialen araubideari esleitzen zaiz-

kion funts publikoetatik lorturiko finantzaketaren osagarri gisa, ikasleengandik jaso beharreko zen-batekoa, araututako irakaskuntzaren kontzeptuan soilik, hau izanen da: 11,01 euro hileko eta ikasle-ko, hamar hilabetez, 2025eko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta 2025eko irailaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra bitar-te; horretatik kanpo daude lantokiko lanbide prestakuntza baizik ez den kurtso batean matriku-latuta dauden ikasleak. Horiek 9,90 euro ordaindu-ko dute ikasle eta hileko, 2025-2026 ikasturteko lantokiko lanbide prestakuntzak irauten duen hiru hilean.

Ikastetxeek ikasleei diru kopuru horiek kobra-tzearen ondorioz eskuraturiko finantzaketa erabili-ko da modulu ekonomikoko “bestelako gastuak” izeneko atalerako eta, beraz, Administrazioak “bestelako gastuak” atalaren zenbatekoa osatzeko falta den kopurua baizik ez du ordainduko.

6. Zuzendaritzako eginkizunetan laguntzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita zazpigarren xedapen gehi-garrian ezarritakoarekin bat, finantzaketaren beha-rra dago. Hori dela eta, hezkuntza maila eta modalitate guztietako eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomiko guztiek (foru lege honen lau-garren xedapen gehigarrian finkatutakoak), lantokiko prestakuntza soileko unitateek izan ezik, 771,51 euroko kopurua daukate urtean “bestelako gastuak” kontzeptuan (514,34 euro goi mailako online heziketa zikloetan), zuzendaritzako eta/edo pedagogiako eginkizunetako beste kargu batzuk finantzatzeko. Hori zuzendaritza-osagarriaz gain, zeinak “gastu aldakorak” izeneko atalean baitirau.

7. Haur Hezkuntzako eta derrigorrezko irakaskuntzetako ikastetxe itunduek artatzen badi-tuzte hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, edo gizarte edo kultur egoera ahulean daudenak edo etxeko laguntza jasotzen dutenak, bestelako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak izan-nen dituzte: ikasle horiei arreta emateko laguntza-irakasleak, logopedia zerbitzuak, eta zaintzaileak edo bestelako langile osagarriak.

Baliabide horiek esleitzeko, deialdi publikoa eginen da, Hezkuntza Departamentuak onetsia, behar diren txosten teknikoak baliatuta.

8. I. eranskinean ezarrita dago Hezkuntza Departamentuarekin hitzarmena sinatu duten ira-bazi-asmorik gabeko entitateetako eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren zenbatekoa.

53. artikulua. Funts-mugimendua, Konferentzia Sektorialaren funtsekin finantzaturako jarduketara bideraturako kredituak kudeatzeko.

Dauden partiden eta gaitu beharreko partiden artean funts-mugimenduak egiten ahalko dira, nahiz eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskaturako eta araututako loturarik ez egon, enplegurako egiazta daitezkeen lanbide-heziketako ekintzei eta enplegu-politika aktiboei dagozkien gastuak behar bezala egozteko, izaeraren arabera; bi talde horiek Konferentzia Sektorialek datuzen funtsekin finantzatu dira.

Funts-mugimendu horiek egiteko eskumena izanen dute, hurrenez hurren, Hezkuntza Departamentuko lanbide-heziketaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren titularrak eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuari atxikitako Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kudeatzaileak.

54. artikulua. Ikerketaren sustapena.

Osasun Departamentuak osasun zientzien arloan ikerketa sustatzea haren inbertsio berekiztat joko da, eta horri ez zaio aplikatuko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea, Dirulaguntzei buruzkoa, salbu eta aurrerakinei dagokienez, zeinak arau horretan ezarritakoaren arabera antolatuko baitira.

55. artikulua. Organoen transplanteen sustapena.

Ospitaleek organoen transplanteak sustatzeko jasotzen duten diru kopuru helburuduna ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetan nahiz ondasun inbertariagarrietako gastuetan erabiltzen ahalko da, jasotako diru horren helburuarekin zerikusia baldin badute betiere.

56. artikulua. Funts-mugimendua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan kreditu zabalgarriak kudeatzeko.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak baimena ematen ahalko du funtsak mugitzeko 54 programa-multzoko aurrekontu-partiden artean (partida horiek zabalgarriak dira foru lege honen 5. artikuluko 4.5 apartatuaren a), h), i), k), l), m) eta n) letretan), bai eta gaitu behar diren artean ere, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

57. artikulua. Funts-mugimendua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxaronzerrendak murrizteko kredituak kudeatzeko.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira itxaronzerrendei dagozkien partiden artean –foru lege honen 5. artikuluko bigarren apartatuan aipatzen direnak–, gastua hobeki kudeatzeko.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak izanen du eskumena funts-mugimendu horiek egiteko.

58. artikulua. Funts-mugimendua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan osasun garraioko kreditu zabalgarriak kudeatzeko. Funts-mugimenduak egiten ahalko dira 540002-52833-2231-311100 partidaren (“Larrialdi sanitarioako eta anbulantziatarako arreta-plana”) eta 540002-52833-2231-311103 partidaren artean (“Enkargua BIDEAN sozietateari. Osasun-garraioa”), gastua hobeto kudeatzeko.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak izanen du eskumena funts-mugimendu horiek egiteko.

59. artikulua. Funts-mugimendua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan BIDEAN sozietateari egindako transferentzien kredituak kudeatzeko.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira 540002-52833-4400-311100 “BIDEAN sozietateari transferentzia arrunta” eta 540002-52833-7400-311100 “BIDEAN sozietateari kapital-transferentzia” partiden artean, gastua hobeto kudeatzeko.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak izanen du eskumena funts-mugimendu horiek egiteko.

60. artikulua. Osasun zentroyen funtzionamendurako transferentziak.

547001-52300-4609-312200 aurrekontu-partidan, “Osasun zentroyen funtzionamendurako transferentziak” izenekoan, Nafarroako udalen jabetzakoak diren herrietako kontsultategien eta kontsultategi osagarrien funtzionamendurako den horretan, dagoen zenbatekoa banatzeko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileak urtero onesten dituen gehieneko zenbatekoak eta moduluak hartuko dira kontuan, eta ez zaio aplikatuko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea.

Edozein kasutan, modulu horiek kontuan hartuko dituzte kontsultategi mota eta azalera.

Herrietako kontsultategiak hornitzeaz Osasun-bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua arduratuko da, kasua bada.

61. artikulua. Funts-mugimendua, Nafarroako 2014-2022 Landa Garapeneko Programa eta 2023-2027 NPEren Plan Estrategikoa finantzatzera bideratutako kredituak kudeatzeko.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira Nafarroako Landa Garapeneko 2014-2022 Programa eta 2023-2027 NPEren Plan Estrategikoa finantzatzera bideratutako aurrekontu-partiden artean, edo haiek behar bezala gauzatzeko sortu behar diren partiden artean, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatutako eta araututako loturarik ez badago ere.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, bertako kontseilariak izanen du aipatutako partiden arteko funts-mugimenduak baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

62. artikulua. Europako Batzordeak baimendutako laguntzak, nekazaritzaren eta basogintzaren arloetako estatu-laguntzei aplika dakizkiekeen Europar Batasunaren zuzentarauekin bat etorritik.

Europako Batzordeak laguntza-araubide batzuk baimendu ditu, bat etorritik Europar Batasunaren zuzentarauekin. Araubide horiek aplika dakizkieke nekazaritzaren eta basogintzaren arloetan eta Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura osotara edo partez finantzatzen diren estatu-laguntzei. Laguntza-araubide horiek beteko dute, lehentasunez bete ere, kasu bakoitzean aplikatu daitekeen Europar Batasuneko araudia.

63. artikulua. Funts-mugimendua Hondakin Funtsaren kredituak kudeatzeko.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira Hondakin Funtsari dagozkion partiden artean, lehendik daudenen eta sortu behar diren partiden artean, gastua hobeki kudeatzeko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatutako eta araututako loturarik ez badago ere.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, bertako kontseilariak izanen du aipatutako partiden arteko funts-mugimenduak baimentzeko

eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

64. artikulua. Hondakin Funtsari dagozkion gastu-kreditu exekutagabeen txertaketak.

Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legeak sortutako Hondakin Funtsari dagozkion gastua, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan kontsignatutakoa, kasuan kasuko ekitaldian exekutatzen ez den zatian, diruzaintzako gerakin atxikitat joko da eta hurrengo aurrekontu-ekitaldietan txertatzen ahalko da.

Gainera, txertatu beharreko kopuruetatik erabili gabeko soberakinak geratzen direnean, hurrengo aurrekontu-ekitaldietan jatorrikoak ez diren beste fluxu eta aurrekontu-partida batzuetara bideratzen ahalko dira, betiere Hondakin Funtserako ezarritako helburuen eta xedeen barruan eta behar bezala identifikatutako partidetan.

65. artikulua. Funts-mugimendua Nafarroako Klima Funtsaren kredituak kudeatzeko.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira Nafarroako Klima Funtsari dagozkion partiden artean, lehendik daudenen eta sortu behar diren partiden artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura, gastua hobeki kudeatzeko.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, bertako kontseilariak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

66. artikulua. Nafarroako Klima Funtsari dagozkion gastu-kreditu exekutagabeen txertaketak.

Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak sortutako Nafarroako Klima Funtsari dagozkion gastua, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan kontsignatutakoa, kasuan kasuko ekitaldian exekutatzen ez den zatian, diruzaintzako gerakin atxikitat joko da eta hurrengo aurrekontu-ekitaldietan txertatzen ahalko da.

67. artikulua. CENER Fundazioari funtsak ematea, I+G+b proiektu eta inbertsioetarako.

G20001-G2100-7309-467300 partida, "CENER Fundazioari funtsak ematea I+G+B-ko proiektu eta

inbertsioetarako” izenekoa, Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala Fundazioak (CENER) bere helbururako –energia berriztagarrien arloko ikerketa eta garapena– egiten dituen proiektu eta inbertsioak finantzatzeko lortutako maileguren saldoaren amortizazioari aplikatuko zaio.

68. artikulua. Funts-mugimendua, % 0,7ko Funtsaren kredituak kudeatzeko.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira % 0,7ko Funtsari dagozkion partiden artean, eta gastua hobeki kudeatzeko beharrezkoak direnak sortzen ahalko dira.

Partidak zer departamenturi dagozkion, haren titularrak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

69. artikulua. Ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeari (Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzekoa) dagokion gastu-kreditu exekutatugabearen txertaketa.

Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeari dagokion gastua, Nafarroako aurrekontu orokorretan kontsignatutakoa, kasuan kasuko ekitaldian exekutatzeko ez den zatian, diruzaintzako gerakin atxikitzen joko da, eta hurrengo aurrekontu ekitaldietan txertatzen ahalko da.

70. artikulua. Sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sindikatuentzat eta enpresaburuen elkarteentzat kontsignatutako gastua kontzeptu hauetara bideratuko da:

a) 970000-97000-4819-494100 partida, “Berrikuntza Sozialerako Unitatea elkartearentzako dirulaguntza, bere funtzionamendurako” izenekoa, erabiliko da Berrikuntza Sozialerako Unitatea elkartearen azpiegiturako eta mantentze-lanetako gastuak ordaintzeko, horrela bete ahal izan dezan bere helburua, zeina baita berrikuntza soziala sustatu eta bultzatzea eta desafio sozialei erantzuteko eta garapen ekonomiko berritzailea, soziala, jasangarria eta pertsonengana zuzendua sustatzen duten bide berritzaileak lankidetzan sortu eta garatzea, enpresa-jarduera eta kalitatezko enplegua sortzearekin batera.

b) 970000-97000-4819-494103 partida, “Sindikatuaren hauteskunde prozesua jarraitzeko batzordea osatzen duten sindikatuari bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa” izenekoa, urriaren 3ko 182/1994 Foru Dekretuaren bidez sorturiko batzorde horretan parte hartzen duten sindikatuaren artean banatuko da, bertan bakoitzak duen ordezkari kopuruaren proportzioan.

c) 970000-97000-4819-494108 partida, “Sindikatuentzako transferentziak, haien ordezkagarritasunaren arabera” izenekoa, haien guztien artean banatuko da bakoitzak Foru Komunitatean duen ordezkariaren arabera, eta horretarako 2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitarte egindako hauteskundeetako eta boto-kontaktetako aktetan adierazitako emaitzak hartuko dira kontuan. Ordezkaritza-agintea indardun izan beharko dute azken data horretan, hala ezarrita baitago Garapen Ekonomikorako kontseilariaren ekainaren 16ko 26E/2017 Foru Aginduan. Foru agindu horren bidez, sindikatuari beren jarduera arruntak gauzatzeko ematen zaien dirulaguntzaren araubidea ezarri da, Nafarroan lortutako ordezkari kopuruaren arabera, bai eta urteko deialdia ere.

d) 970000-97000-4819-494111 partida, “Eragile sozial eta enpresarialentzako transferentzia, haien parte-hartzearen arabera” izenekoa, eragile sozialen eta enpresarialen parte-hartze instituzionala sustatzeko izanen da, hala ezarrita baitago Garapen Ekonomikorako kontseilariaren azaroaren 3ko 222/2016 Foru Aginduan. Foru agindu horren bidez erakunde sindikalek eta enpresaburuen erakundeek parte hartzeagatik jasoko dituzten konpentsazioak arautzen dira.

e) 970000-97000-4819-494113 partida, “Enpresa erakundeentzako transferentzia, haien ordezkagarritasunaren arabera. CEN” izenekoa, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren azpiegitura- eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko izanen da, bere funtsezko helburuak, erakundearen estatutuetan jasotakoak, bete ditzan.

f) 970000-97000-4819-494114 partida, “Ekonomia sozialeko entitateak sustatu eta mantentzea. ANEL” izenekoa, Nafarroako Lan Enpresen Elkarte (ANEL) izenekoaren azpiegitura eta mantentze-lanen gastuak ordaintzeko erabiliko da, ekonomia soziala bultzatu, garatu, sustatu eta indartzeko xedea bete dezan.

g) 970000-97000-4819-494121 partida, “Transferentzia Ekimen Sozialeko Enplegu Zentro Berezien Elkarteari (CEISNA)” izenekoa, erabiliko da Nafarroako Ekimen Sozialeko Enplegu Zentro

Berezien azpiegitura- eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko, desgaitasuna duten pertsonen lan- eta gizarte-inklusio erabatekoaren alde lan egin dezan, entitate horrek Nafarroako ekonomia soziala ordezkatzeko baitu.

h) 970000-97000-4819-494122 partida, "Transferentzia Nafarroako Gizarteratze Enpresen Elkarteari (EINA)" izeneko, erabiliko da Nafarroako Gizarteratze Enpresen Elkarteari azpiegitura- eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko, lan egin dezan lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzearen eta laneratzeari alde, entitate horrek Nafarroako ekonomia soziala ordezkatzeko baitu.

i) 970000-97000-4819-494123 partida, "Transferentzia Nafarroako Fundazioen Elkarteari (PIES)" izeneko, erabiliko da Nafarroako Fundazioen Elkarteari azpiegitura- eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko, fundazio-eredua susta dezan ekonomia sozialetik, eta fundazioen kudeaketa eta haien arteko elkarlana hobetu ditzan", entitate horrek Nafarroako ekonomia soziala ordezkatzeko baitu.

j) 970000-97000-4819-494131 partida, "Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarentzako (CEN) dirulaguntza, enpresetan berdintasunaren arloan sustatzeko eta dinamizatzeko" izeneko, Nafarroako enpresetan genero berdintasuna bul-tzatzeko, aholkatzeko eta sustatzeko erabiliko da.

k) 950002-96200-4819-242106 partida, "Prestakuntza-premiak ikertu eta planifikatzeko jardueretan parte hartzeagatik konpentsazioa" izeneko, banatuko da Lan arloan enplegurako lanbide heziketako sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legean aurreikusitakoari jarraikiz.

71. artikulua. Funts-mugimendua gizarte-inklusioaren arloko diru-sarrerak bermatzeko prestazioetara bideratutako kredituak kudeatzeko.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuko titularrak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu "Errenta bermatua" izeneko 901002-91100-4809-231500 partidaren eta "Bizitzeko gutxieneko errenta" izeneko 901002-91100-4809-231505 partidaren eta sortu beharrekoen artean, nahiz eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan araututako eta eskatutako loturarik ez egon, gastua hobeki kudeatzeko.

72. artikulua. Funts-mugimendua, Gizarte Zerbitzuen Zorroak mendekotasunaren, desgaitasunaren eta gaixotasun mentalaren arretarako bermatzen

dituen prestazioetara bideratutako kredituak kudeatzeko.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuko titularrak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu partida hauen eta helburu beretarako sortu beharrekoen artean:

a) 920005-93100-2600-231B04 partida, "Adinekoentzako zentroyen kudeaketa" izeneko.

b) 920005-93100-2600-231B05 partida, "Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroyen kudeaketa" izeneko.

c) 920005-93100-2600-231B06 partida, "Ogasun mentaleko zentroyen kudeaketa" izeneko.

d) 920004-93200-4809-231B00 partida, "Zerbitzuari lotutako laguntzak" izeneko.

e) 920004-93200-4809-231B02 partida, "Zerbitzu pertsonalei arreta emateko laguntzak" izeneko.

73. artikulua. Funts-mugimendua, Gizarte Zerbitzuen Zorroak haurrei eta nerabeei arreta emateko bermatzen dituen prestazioetara bideratutako kredituak kudeatzeko.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuko titularrak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu foru lege honen 5. artikuluko 4.8 apartatuan zabalgarritzat jotzen diren 920008 proiektuko partiden eta gaitu beharrekoen artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

74. artikulua. Parquenasa - Sendavivari dirulaguntzak emateko partiden arteko funts-mugimendua.

Turismo Zuzendaritza Nagusiko titularrak funts-mugimenduak baimentzen ahalko ditu A30004-A3400-4709-458300 partidaren "Parquenasa - Sendavivari dirulaguntzak" eta A30004-A3400-7709-458300 partidaren artean "Parquenasa - Sendavivari dirulaguntzak. Inbertsioak".

75. artikulua. Funts-mugimendua Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagozkion kredituak kudeatzeko.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira Estatu-ko Administrazio-ko organo eskudunak onetsitako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko azpiproiektu bakoitzeko partiden artean, lehendik daudenen edota ekitaldian sortu behar izan direnen artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru

Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, bertako kontseilariak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

76. artikulua. Kreditu-aldaketak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagozkionak.

1. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagokion gastua, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan kontsignatutakoa, kasuan kasuko ekitaldian exekutatu ez den zatian, diruzaintzako gerakin atxikitat joko da eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian txertatzen ahalko da, proiektu bakoitzaren partidetatik edozeinetan.

2. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren dirulaguntzei dagozkien aurrekontu-aldaketak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluko mugetatik kanpo geratzen dira.

77. artikulua. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiaren funtsekin finantzatutako dirulaguntzen ordainketa aurreratuak.

Ez da beharrezkoa izanen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 33.2 artikuluan ezarritako bermeak ematea, Europar Batasunaren Next Generation EU funtsak finantzatzen dituen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiaren ("Turismo Modernizaziorako eta Lehiakortasunerako Plana"), 1. inbertsioaren ("Turismo Eredua Jasangarritasunerantz Eraldatzea") 2. azpi-neurriaren funtsekin ("Helmugako Turismo Jasangarritasunerako Planen Programa") emandako dirulaguntzen ordainketa-aurreratuak egiteko.

78. artikulua. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko 2. osagaiko dirulaguntzen deialdiak.

Administrazio-ebazpen bidez onesten ahalko dira kreditu-zenbateko gehigarriak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko etxebizitzaren birgaitzearen arloko laguntza-programak garatzen onetsitako dirulaguntzen deialdietan, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, baita eskabideak aurkezteko epea bukatuta dagoenean ere, programa horiek finantzatzeko jaso diren funts berrien zenbatekoarekin.

Halaber, baliagarri dauden funtsak programen artean birbanatzea onesten ahalko da, errege dekretu horretan ezarritakoari jarraikiz. Gastu gehigarriaren igoera onesteak ez du berekin ekarriko eskabideak aurkezteko beste epe bat abiaraztea.

79. artikulua. Itoizko urtegiak ukitutako udalerri eta kontzejuen lurralde-garapen jasangarriko inbertsioen Plan Estrategikoaren proposamenean identifikatutako inbertsioak diruz laguntzeko zenbatekoaren banaketa. Proposamen hori "Itoiz Baztordeak" onetsi zuen.

210002-21400-7609-922105 partida, "Itoizko Lurralde Garapen Iraunkorrekiko Proiektuak, Longida, Artzibar, Agoitz eta Orotz-Beteluko udalekin hitzarmena" izenekoa, Itoizko urtegiak ukitutako udalerri eta kontzejuetara bideratuko da, eta udalekin egindako hitzarmenen bidez artikulatuko da, honela banatuta:

- Agoizko Udala: % 47.
- Artzibarko Udala eta kontzejuak: % 24.
- Longidako Udala eta kontzejuak: % 24.
- Orotz-Beteluko Udala: % 5.

Beren eskumeneko inbertsioetarako, kontzejuak kudeaketa-esleipenak egiten ahalko dizkiete beren udalei.

80. artikulua. 2025eko inbertsio-programa.

1. Aurreko ekitaldian kontabilitate nazionalari dagokionez lortutako gastu orokorren diruzaintzako gerakina, 67.139.000 eurokoa, III. eranskinean jasotako inbertsioak finantzatzeko erabiliko da, artikuluko honetan ezarritako baldintzetan.

2. Kasuko gastu-espeditatearen hasiera eta egindako inbertsioetik heldutako betebeharrak ekonomiko guztien aitorpena 2025eko ekitaldia amaitu baino lehen egin beharko dira.

Hala ere, exekuzio-epea aurrekontu-ekitaldia baino luzeagoa duten eta aurreikusitako gastua 2025eko ekitaldian osorik gauzatu ezin den inbertsio-proiektuetan, baimendutako gastuaren gainerako zatia hurrengo ekitaldian konprometitu eta aintzatesten ahalko da, eta diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatuko da; gerakin hori xede horri atxikita geratuko da gainerako zenbateko horretan.

3. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatutako eta araututako loturarik ez egon arren, III. eranskinean adierazitako aurrekontu-partidak

edo gaitu beharrekoak zuzkitzeko behar diren aurrekontu-aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean eta foru lege honetan horri buruz xedatutakoari lotuko zaizkio.

Dirulaguntzei dagozkien partiden aurrekontu-aldaketak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluko mugetatik kanpo geratzen dira.

4. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenean eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoan onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen 67.2.l) artikuluan xedatutakoaren babesean, xedapen honetan jasotako zehaztapenen babesean sor daitezkeen gaiak Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordean arautuko eta interpretatuko dira.

81. artikulua. Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkaritza.

Europar Batasuneko Gaietarako Nafarroak duen Bulego Iraunkorraren ohiko jardunerako behar diren gastuak kutxa finkoko aurrerakinekin edo, hala bada, justifikatu beharreko ordain-agin-uekin ordaintzen ahalko dira.

82. artikulua. Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren, Arartekoaren, Nafarroako Kontseiluaren eta Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren aurrekontu-zuzkidurak.

1. Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren eta Arartekoaren aurrekontu-zuzkidurak ordaintzeko aginduak, hurrenez hurren, Parlamentuko Mahaiak edo erakunde horietako ordezkariak eskatu ahala eginen dira, irmoki eta aldizka.

2. Duten independentzia organikoa eta funtzionala ezertan galarazi gabe, Nafarroako Kontseilua eta Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari buruzko araudi orokorraren mendean egonen dira.

Halaber, haien ekonomia- eta aurrekontu-jarduna Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzailetzaren kontrolpean egonen da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat eta haren erakunde autonomoentzat ezarrita dauden baldintza beretan.

Nafarroako Kontseilurako eta Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegorako transferentzia arruntak, oro har, hiru hilabeteko aurrerapenarekin libratuko dira, non eta behar handiagoak ez diren justifikatzen.

Kapital transferentziak erakunde horietako ordezkariak eskatu ahala eginen dira, eskaera eragin duen gastuaren beharra justifikatuta.

Lehen xedapen gehigarria. Trafikoaren eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloko zerbitzu-transferentzia.

1. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Foru Komunitateko Administrazioaren plantillan sar ditzan apirilaren 4ko 252/2023 Errege Dekretuaren 2. zerrendan identifikatzen diren funtzionarioak edo langile lan-kontratadunak. Errege dekretu horren bidez Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzen zaizkio Estatuako Administrazioak trafikoaren eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloan dituen zenbait eginkizun eta zerbitzu.

2. Baimena ematen zaio Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako Departamentuari, Trafiko Taldean zerbitzuak ematen dituzten Estatuako Administrazio Orokorreko funtzionarioak Foruzaingoan sartu ahal izateko beharrezkoak diren mekanismoak gaitzeko, Nafarroako Polizieari buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritz.

3. Gerta daiteke transferentzia egin aurretik zenbait langilek, oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak batuta, zenbateko handiagoa jasotzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileen ordainsari-araudia aplikatuta legokiekeena baino. Langile horiei osagarri bat esleituko zaie, aldea konpentsatzeko. Konpentsazio hori xurgatu eginen da beren ordainsarrietan izaten den edozein gehikuntzarekin, eta horien artean sartuko dira, espresuki, bai ordainsari pertsonalei eta osagarriei dagozkienak bai oro har aplikatu daitezkeen ordainsari eguneratzei dagozkienak.

Bigarren xedapen gehigarria. Eskumenak Nafarroako Ubidearen 1. eta 2. faseetako eremu ureztagarrietan.

Lurralde Kohesiorako Departamentuari dagozkio Nafarroako Ubidearen 1. faseko eremu ureztagarriaren (handitutako eremua barne) interes orokorreko azpiegiturak eraiki eta ustiatzeko herri-lanen emakidarako kontratuetako eskumenak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dituenak Nafarroako Ubidearen eremu urez-

tagarriko interes orokorreko azpiegituren eraikuntza eta ustiapena arautzen dituen azaroaren 22ko 12/2005 Foru Legeko 3.1.b) artikulua arabera, salbu eta lurzatiak biltzeko prozesuen eta sektore edo eremu bakoitza ureztatzen hasteko deklarazioen eta haien aldaketen gainekoak. Emakida-kontratuko obra-proiektuen eta haien aldaketen onespren administratiboa Lurralde Kohesiorako Departamentuak emanen du.

Dagokion departamentuak ordainduko ditu emakida-kontratuen kanonak, kredituen aurrekontu-kontsignazioaren arabera.

Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroako Ubidearen 2. faseko eremu ureztagarrietan dauzkan jarduketa-eskumenak Lurralde Kohesiorako Departamentuari dagozkio, salbu eta lurzatiak biltzeko prozesuen eta sektore edo eremu bakoitza ureztatzen hasteko adierazpenen eta haien aldaketen gainekoak.

Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrian interes orokorreko azpiegiturak eraikitzeke obra guztiak bukatu ondoren, azpiegitura horri dagokion eskumenak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak beteko ditu.

Hirugarren xedapen gehigarria. Garraioaren arloko eskudantziak.

Garraio zerbitzuak kontratatzeke eta xedetzat garraio jarduerak dituzten dirulaguntzak emateko, Lurralde Kohesiorako Departamentuko Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena eman beharko du aurretik, betiere.

Laugarren xedapen gehigarria. Itundutako ikastetxeen sostengurako funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoak.

Ikastetxe itunduetako hezkuntza-maila eta -modalitate desberdinetan, eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomikoen urteko zenbatekoak, kontzeptu hauetan xehakaturikoak: "Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne", unitate itundu bakoitzeko irakasle titular eta agregatuaren ratioa zehaztuta, "Gastu aldakorrak", "Bestelako gastuak", eta, halakorik badago, "Langileria eta gastu espezifikak", kontzeptu bakoitzak modulu osoarekiko egiten

duen portzentajea adierazita, l. eranskinean jasotakoak izanen dira.

"Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne" kontzeptuan biltzen da irakasleen ordainsarien eta haien gizarte-kargen ondoriozko kostua, irakaskuntza mailen arabera.

"Gastu aldakorrak" kontzeptuan biltzen dira, irakasleen antzinasunaren eta horrek Gizarte Segurantzaren duen eraginaren kostuaz gain, irakasle-ordezteak, zuzendaritza-osagarria eta Langileen Estatutuaren 68.e) artikuluan ezarritakoaren ondoriozko betebeharrak.

Diru kopuru horiek funts orokor batean bilduko dira, zeina irakaslez irakasle banatuko baita ikastetxe itunduetako irakasleen artean, irakasle bakoitzarengan gertatzen diren inguruabarren arabera.

Bosgarren xedapen gehigarria. Ikasliburuen doakotasunerako programako liburuaren salmenta.

Ikasliburuen doakotasunerako programako liburuak saltzen ahalko dituzte, bakar-bakarrik, liburu-salmentan jarduteko gaikuntza ematen dien baimena daukaten establezimenduek.

Seigarren xedapen gehigarria. Eskubide sozialen arloko prestazio bidegabeki jasotakoak itzultzea.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ezarriko du zatika itzul daitezkeen Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiak, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak ordaindutako aldizkako prestazio eta pentsio gisa bidegabeki jasotako kopuruak, aipatu diren erakunde autonomoek eta zuzendaritza nagusiak proposatuta, kasua bada; eta ez du ez interesik ez bermerik eskatuko.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Nekazaritzako estatistika-lanetan laguntzeagatik diru-ordainak.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak diru-ordainak ematen ahalko dizkie nekazaritzaren arloko estatistikan laguntzen duten pertsonen, laguntza horrek sortzen dizkien gastuengatik, betiere muga hauekin (eurotan, urtero):

Urte osoko labore-azalerak	85
Laboreen urteroko ekoizpenak	85
Abeltzaintzako beste ekoizpen batzuen ebaluazioa	275
Lurraren prezioak	1.400
Landa errentamenduen kanonak	380
Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen asteroko prezioak	1.900
Nekazariak eta abeltzainek jasotako prezioak	1.200
Nekazariak eta abeltzainek ordaindutako prezioak	655
Munta gutxiko produktuen prezioak	330
Nekazaritzako lansariak	220
Kontu makroekonomikoak	220
Meteorologia-Osoa	1.440
Meteorologia-Erdizka	1.275
Meteorologia-Termoplubiometrikoa, elurrari buruzko informazioarekin	1.070
Meteorologia-Termoplubiometrikoa	820
Meteorologia-Plubiometrikoa	725
Meteorologia-Erdizka, elurrari buruzko informazioarekin	1.525

Zortzigarren xedapen gehigarria. Zerbitzu kontratuak eta enkarguak, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetik (NBEUF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) heldu diren laguntzak kontrolatzekoak.

Europako Batzordearen 2021eko abenduaren 7ko 2022/127 (EB) Erregelamendu delegatuaren bidez osatu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2116 (EB) Erregelamendua, erakunde ordaintzaileei eta beste organo batzuei, finantza kudeaketari, kontuen likidazioari, bermeei eta euroaren erabilerari dagokienez; hori horrela, bermatzearen bete egiten direla erregelamendu delegatu horrek Europako NBEUF eta LGENF funtsen kontuak kitatzeko prozedurari dagokionez ezartzen dituen betebeharrak, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak zerbitzu kontratuak egiten ahalko ditu, kontrolatu eta egiaztatze aldera Europako funts horietatik heldu diren laguntzen eskatzaileei ordainketak egiteko oinarri gisa hartzen diren egitateak, edo aldezte aldera Nafarroako Foru Komunitateko Erakunde Ordaintzailearen eginkizunen betetzea. Era berean, enkargua egin diezaike Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate instrumentalei eginkizun horiek betetzeko.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. Gaikuntza Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoi atxikitako osasun-langileek irakaskuntza- edo ikerketa-ekintzetan parte hartzeko.

1. Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoi atxikitako osasun-langileek irakaskuntza-lankidetzan jarduten ahalko dute Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, beren eginkizunen esparruan, irakaskuntza biziagotzeko programetan parte hartuz, horrelakoak ezartzen direnean Osasun Departamentuaren eta aipatutako Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko hitzarmenen bidez.

2. Era berean, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoi atxikitako osasun-langileei gaikuntza ematen zaie beren eginkizunen esparruan ikerketa-ekintzak egin ditzaten, Nafarroako Gobernuarentzat interesgarriak direnak, foru sektore publiko instituzionaleko entitateetan.

3. Aurreko apartatuetan aipatutako jarduerak egiteko baimena eman ahal izateko, aurrez Osasun Zuzendaritza Nagusiaren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Zuzendaritzaren edo Nafarroako Osasun Publikoaren edo Lan Osasunaren Institutuaren Kudeaketa Zuzendaritzaren ebazpena beharko da, interesdunari dagokion atxikipen organoaren arabera.

Hamargarren xedapen gehigarria. Fakultati-boen produktibitate finkoko osagarriaren aplikazio-eremua zabaltzea.

Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 6.3.i) artikuluan ezarritako produktibitate finkoko osagarriaren aplikazio-eremua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako departamentu guztietako osasun fakultatibo guztientzat zabaltzen da.

Lehen xedapen iragankorra. LHko ikasleen praktikak: Gizarte Segurantzaren.

2025ean, 430001-43100-4800-322E00 partidari, "Lanbide Heziketako ikasleen praktikak: Gizarte Segurantzaren" izenekoari, egotziko zaizkio prestakuntza-praktikak edo kanpoko praktika akademikoak egiten ari diren Lanbide Heziketako ikasleek Gizarte Segurantzaren kotizatutako gastuak, baldin eta praktika horiek funts publikoekin sostengatutako ikastetxeetako prestakuntza-programetan sartuta badaude.

Bigarren xedapen iragankorra. Etxebizitza babestuen gehieneko salmenta-prezioak 2025ean.

1. Etxebizitza babestuak eta haien eranskinak 2025ean saltzeko gehieneko salneurria zehazteko, ez da aplikatuko Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 10.1.a) eta 10.1.d) artikuluan xedatutakoa.

2. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2025ean aplikatuko zaien modulu ponderatua 1.540,74 eurokoa izanen da metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

3. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2025ean aplikatuko zaien modulu ponderatu gabea 1.479,11 eurokoa izanen da metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

Azken xedapenetako lehena. Aldaketa Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean.

Bat. 16. artikuluko 2. apartatuko c) letra aldatzen da, eta haxe da testu berria:

"c) Negozio-bolumen orokorrari buruzko adierazpena, eta, hala behar denean, kontratuaren xedearen antzekoa den jarduera-arloko negozio-bolumenari buruzkoa, eskueran dauden azken hiru ekitaldietakoa gehienez ere, lizitatu behar duenaren eratzegunaren edo jardueren hasieragunaren arabera, betiere negozio-bolumen horren erreferentziak eskura dauden heinean.

Eskatzen den urteko gutxieneko negozio-bolumena ez da izanen kontratuaren balio zenbatetsia halako bat eta erdi baino handiagoa. Bereziki, prestazio jarraituko kontratuetan, balio zenbatetsiaren kalkuluan zenbait urteko aurreikusten direnean, eska daitekeen negozio-bolumena prestazioaren urteko batez besteko balioa kontuan hartuta kalkulatu da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, muga horiek gainditzen ahalko dira behar bezala justifikatutako kasuetan, hala nola obren, zerbitzuen edo horniduren izaerari lotutako arrisku bereziki zerikusia dutenetan. Kasu horretan, 138.3. artikulua aipatzen duen premiei buruzko txostenean adieraziko dira betekizun hori ezartzeko arrazoi nagusiak".

Kontrata sortetan banatzen denean, irizpide hau sorta bakoitzari aplikatuko zaio. Hala ere, kontratazio-organoak zilegi izanen du sorta-multzak erreferentzia gisa hartuz ezartzea lizitatuzaileei eskatutako urteko gutxieneko negozio-bolumena, baldin eta adjudikazio-hartzaileari aldi berean exekutatu beharreko zenbait sorta adjudikatutako bazaizkio".

Bj. 22. artikuluko 1. puntuko f) letra aldatzen da, eta haxe da testu berria:

"f) Eguneraturik ez egotea indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga arloko edo Gizarte Segurantzako betebeharreran, erregelamenduz ezartzen den moduan; edo, 50 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, gutxienez langileen % 2 desgaitasuna duten langileak izatearen baldintza ez betetzea, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duenak, 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, , zeina dagokion erregistroan inskribatu beharko baita, erregelamenduz ezartzen den moduan; edota, 50 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, ez betetzea berdintasun plan bat edukitzearen betebeharra, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 45. artikuluan xedatzen denaren arabera".

Hiru. Hogeita batgarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

"Sendagaien Prezioetarako ministerioen arteko Batzordearen erabakiz, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatuaren bidez eskuratzeko ahalko ditu patente-babesa duten sendagaiak, sistema publikoan duten prezioa eta finantzaketa-baldintzak zehaztuta egonik Osasun Ministerioko

Osasun Sistema Nazionalaren eta Farmaziaren Zerbitzu Erkideen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez. Tramitatzeko orduan, bete beharreko premien izaera berezia kontuan hartuta, honako hau baino ez da eskatuko:

a) Beharrianaren eta kreditua egotearen justifikazioa.

b) Kontratuaren baldintzak onartzeko agiria, behar bezala sinatua.

c) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren Kudeaketa Zuzendaritzaren ebazpena, gastua eta kontratua onesten dituen.

Kontratu horiek publiko eginen dira, foru lege honen 102.1 artikuluan ezarritakoarekin bat”.

Azken xedapenetako bigarrena. Aldatzea 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

12. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta hau da testu berria:

“1. Foru lege honen xedapenen arabera biktima deklaratuak diren pertsonen aitortuta edukiko dituzte, osasun arretaz gainera, kalte fisiko, psikologiko edo materialengatik ordain ekonomikoak.

Ordain ekonomiko horiek bateragarri dira gertakari berengatik beste erakunde batzuegandik jasotzera zilegituta egon litezkeeneko beste kopuruekin, baldin eta foru lege honen babesean aitortuak izan diren ordain ekonomikoak baino baxuagoak badira. Ondorioz, beste entitate batzuegandik jasotako edo haiek aitortutako kopuruak baxuagoak direnean Foru Komunitateko Administrazioak emandakoak baino, hartzaileak azken horrengandik jasoko du bi laguntza horien arteko aldea bakarrik.

Kalte-ordain ekonomikoak gehenez ere lau urteko epean ordaindu beharko dira, eskaera baiesten duen ebazpenaren datatik zenbatzen hasita, eta kontzeptu horrengatik aitortutako eta likidatutako obligazioei ez zaie aplikatuko ordainketa eskatzeko eskubidearen preskripzio-epe orokorra, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Legearen 25.1b) artikuluan ezarritakoa”.

Azken xedapenetako hirugarrena. Aldatzea 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duena.

Bat. 45. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta hau da testu berria:

“2. Lanpostu horiek betetzen dituztenek erabateko prestutasuneko eta erabateko dedikazioko erregimenean emanen dituzte zerbitzuak, eta ezin izanen dute bestelako irabazizko jarduerarik egin ez sektore publikoan ez pribatuan, honako hauek izan ezik:

a) Norberaren edo familiaren ondarea administratze hutsa.

b) Irakaslana unibertsitateko zentroetan, betiere lanaldi partzialean egiten baldin bada, denbora jakin baterako, eta kargu publikoan aritzeari kalte egiten ez badio.

c) Funtzionarioak edo irakasleak prestatzeko zentro ofizialetan mintegiak zuzentzea edo ikastaroak edo hitzaldiak ematea, baldin eta ez bada iraunkorra edo ohikoa eta urtean 75 ordu baino gehiago hartzen ez baditu.

d) Funtzio publikoan sartzeko prestatzea; horrek, nolahi ere, bateraezintasuna ekarriko du langileak hautatzeko organoetako kide izateko, baldin eta urtean 75 ordu baino gehiagoko dedikazioa ez badakar eta lan-ordutegia ez betetzea eragiten ez badu.

e) Herri-administrazioetan sartzeko hautaprotarako kalifikazio-epaimahaietan parte hartzea.

f) Literatura-, arte-, zientzia- eta teknika-ekoizpena eta -sorkuntza, bai eta horien ondoriozko argitalpenak ere, baldin eta enplegu-harreman baten edo zerbitzu-emate baten ondorioz sortzen ez badira.

g) Edozein gizarte-komunikabidetako mahai-inguru eta programetan noizean behin parte hartzea.

h) Kongresu, mintegi, hitzaldi edo ikastaro profesionaletan noizbehinka parte hartzea”.

Bj. 63. artikuluko m) letra kentzen da.

Hiru. l) letra erantsiko zaio 64. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

“l) Sexu-jazarpena”.

Lau. 70. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta hau da testu berria:

“3. Arau-hauste arinengatik ezartzen diren zehapenak urtebeteren buruan preskribatuko dira, arau-hauste astunengatik ezartzen direnak bi urteren buruan eta arau-hauste oso astunengatik ezartzen direnak hiru urteren buruan.

Bost. Hogeita seigarren xedapen gehigarria gehitzen da, testu honekin:

“Hogeita seigarren xedapen gehigarria. Guraso-baimena.

Enplegatu publikoek urtebetetik gorako guraso-baimena hartzen ahalko dute seme-alabak edo familiar hartutako adingabeak zaintzeko, adingabeak zortzi urte bete arte. Zortzi aste jarraituko edo eteneko iraupena izanen du gehienez, eta lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa izan daiteke, zerbitzuaren beharrek ahalbidetzen dutenean eta erregelamendu bidez ezarritako baldintzen arabera.

Baimen hori guraso, adoptatzaile edo hartzaileen, gizon zein emakumeen, eskubide indibiduala da, eta ezin da eskualdatu.

Zerbitzuaren beharrek ahalbidetzen dutenean, gurasoek, adoptatzaileek edo hartzaileek zehaztu beharko dute noiz hasiko eta amaituko diren oporrak edo, hala badagokio, noiz hartuko diren baimen-aldiak. Administrazioari jakinarazi beharko diote, hamabost egun lehenago, eta aste osoka eginen da.

Baldin eta bi gurasoek, adoptatzaileek edo hartzaileek, subjektu eta gertaera eragile beragatik, baimen hori izateko eskubidea izateko baldintzak betetzen badituzte, eta eskatutako aldi guraso-baimena hartzeak larriki aldatzen badu biek lan egiten duten administrazio-unitatearen funtzionamendu egokia, administrazio-unitate horrek baimena atzeratzen ahalko du arrazoizko aldi baterako, idatziz justifikatuz eta beste aukera malguago bat eskaini ondoren.

Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ama biologikoa terminoak haurdun dauden transak ere barne hartzen ditu”.

Sei. Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria gehitzen da, testu honekin:

“Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Enplegu publikora sartzeko lehentasuna ematea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei.

1. Nafarroako Foru Komunitateak onetsitako araudiaren arabera lanpostua lortzen duten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek, edozein txandatan eta izaera hori egiaztatzen badute, lehentasuna izanen dute gainerako izangaien aurretik lanpostu hutsak hautatzeko orduan, hartatik eragotzi gabe desgaitasuna duten pertsonentzat ezarritako lehentasun-hurrenkerearen lehentasuna.

2. Era berean, haien babesa edo gizarte-laguntza osorako eskubidea gauzatzeko, aldi baterako

kontrataziorako izangaien zerrendetan hamar lanpostutik bigarrena gordeko da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek betetzeko, betiere dagozkien hautaketa-probak gainditu badituzte eta beren egoera egiaztatzen badute”.

Azken xedapenetako laugarrena. Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 36. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta haxe da testu berria:

“1. Nahitaezko erretiro-pentsioa jasotzea bateraezina izanen da sektore publikoan edo pribatuan lanpostu, kargu edo jarduera bat betetzearekin.

Pentsioa eten eginen da lanpostu horretan diharduen bitartean, baina horrek ez du eraginik izanen haren balio-handitzeetan.

2. Erretiroa hartu duen funtzionarioak nahitaez jakinarazi beharko dio pentsioa aitortu dion Nafarroako Administrazio Publikoaren montepioari sektore publikoan edo pribatuan lanpostu, kargu edo jarduera bat betetzen duela”.

Bi. 53. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta haxe da testu berria:

“1. Ezintasun iraunkorragatiko biziarteko pentsioa, dagokion ezintasun-gradua edozein dela ere, bateraezina izanen da sektore publiko ordainduan lanpostu, kargu edo jarduera bat betetzearekin”.

Azken xedapenetako bosgarrena. Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legea aldatzea.

Bat. 42. artikuluko 3. puntuko g) letra aldatzen da, eta haxe da testu berria:

“g) Nafarroako Gobernuari sustapen eta komunikazio ekintzetarako zuzenean egindako ekarpenak, edo antzeko beste batzuk, ontzien hondakinak kudeatzeko (edo, ekoizlearen erantzukizun zabalduaren esparruan, hondakinak kudeatzeko garatzen diren beste sistema batzuetarako) ezartzen diren sistemekin sinatzen diren hitzarmenen ondoriozkoak, eta, hala badagokio, toki erakunde-ek helburu horietarako erabiltzen ez dituztenak”.

Bi. l) letra erantsiko zaio 43. artikuluari, eta testu hau du:

“l) Baimenen eta hitzarmenen kontrola, ikuskapena eta jarraipena, ekoizlearen erantzukizun zabalduaren esparruan.

Nafarroako Hondakinen Funtsaren baliabide ekonomikoak bideratzen ahalko dira hura kudeatzeko behar diren baliabideez hornitzeko”.

Azken xedapenetako seigarrena. Hartz arrea (Ursus Arctos) Berreskuratzeko Plana onesten duen uztailaren 1eko 268/1996 Foru Dekretua aldatzea.

Bat. Nafarroan hartz arrea berreskuratzeko planaren eranskinaren hirugarren puntuko 2. helburuaren 6. neurria aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“Hirugarrena. 2 helburua. 6. neurria. Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ezartzea hartz arreak eragin ditzakeen kalte guztiak konpentsatzeko sistema arin eta sinplifikatua.

d) Hartz arreak eragindako kalteen tasazioa, hala dagokionean, animalien merkatuko prezioaren batez besteko balioespenaren arabera eginen da, adinaren, gaitasunaren eta arrazaren arabera. Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiak urtero finkatzen du balorazio hori, eta haztapen-koefiziente batzuen bidez zuzenduko da, lotutako galeren beste kontzeptu batzuk estaltzeko eta prebentzio-neurriak hartu dituzten ustiategiak lehenesteko. Balorazio horri, halaber, zenbateko jakin bat gehituko zaio erasoagatik, abere-taldearen

kudeaketaren nahasmenduengatik (ganadua sakabanatzea, espezieen estresa, oneratzeko larratzea eta beste batzuk). Bai kalteen tasazioaren gainean aplikatu beharreko haztapen-koefizienteak, bai eraso-nahaste gisa dagokion zenbatekoa, biodibertsitatearen arloan eskumena duen kontseilariaren foru-agindu bidez definituko dira. Foru agindu horrek, era berean, abeltzaintzari nahiz toki-ko beste jarduera batzuei, hala nola erlezaintzari, eragindako beste kalte batzuk tasatzeko baremoak definitzen ahalko ditu. Halaber, foru agindu bidez zehaztuko dira ponderazio-koefizienteen etorkizuneko eguneratzeak, kalte-ordaina jaso behar duten jarduerak eta erasoaren ondoriozko nahasmendu gisa dagokien zenbatekoa, zenbateko horiek gorantz berrikuste aldera.

Langile kualifikatuek aurreko paragrafoan adierazitako kontzeptuengatik kalte handiagoen berri ematen edo ziurtatzen badute, kalte horien benetako zenbatekoa hartuko da kontuan”.

Bi. Nafarroan hartz arrea berreskuratzeko planaren I. eranskina kentzen da.

Azken xedapenetako zazpigarrena. Indarrean jartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA. Hezkuntza mailetako urteko moduluko eta ratioak 2025

	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU ALDAKORRAK	MODULUA %	BESTE GASTU BATZUK	MODULUA %	MODULUA, GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA							
HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA	1,217	0	53.665,14	71,37	9.546,58	12,70	11.981,27	15,93	75.192,99
LEHEN HEZKUNTZA	1,391	0	61.337,89	70,48	12.996,29	14,93	12.700,24	14,59	87.034,42
DBHko LEHEN ETA BIGARREN MAILAK	1,652	0	77.046,63	72,81	13.719,79	12,97	15.053,11	14,22	105.819,53
DBHko HIRUGARREN ETA LAUGARREN MAILAK	1,728	0	87.563,66	72,67	16.028,42	13,30	16.896,64	14,03	120.488,72
DBH IKASKUNTZA ETA ERRENDIMENDUA HOBETZEKO PROGRAMA 2. ETA 3. MAILAK	1,391	0	70.486,72	70,17	13.070,75	13,01	16.896,64	16,82	100.454,11
DBH CURRICULUM EGOKITUKO PROGRAMA	0,957	0,652	78.723,61	70,89	15.430,74	13,90	16.896,64	15,21	111.050,99
BATXILERGOA	1,652	0	83.712,48	70,95	17.381,53	14,73	16.896,64	14,32	117.990,65

	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	% MODULUA	GASTU ALDAKORRAK	% MODULUA	BESTELAKO GASTUAK	% MODULUA	LANGILERIA ETA GASTU ESPEZIFIKOAK	% MODULUA	MODULUA, GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA									
HEZ. BEREZIA Ikasgela Alternatiboa (Haur eta Lehen Hezkuntza)	1,087	0	47.932,62	43,71	8.357,92	7,62	12.700,24	11,58	40.659,99	37,09	109.650,77
HEZ. BEREZIA EU/AEN (Egokitzapen ikasgela)	1,087	0	47.932,62	47,33	8.357,92	8,25	12.700,24	12,54	32.283,81	31,88	101.274,59
HEZ. BEREZIA Ikasgela Alternatiboa (Bigarren Hezkuntza)	1,391	0	61.337,89	47,17	8.339,31	6,41	12.700,24	9,77	47.664,97	36,65	130.042,41
Lanbide Heziketa Bereziko zikloak	1,087	1,087	98.329,98	50,79	19.015,90	9,82	16.896,64	8,73	59.344,31	30,66	193.586,83
Helduarora igarotzeko programa	0,696	0,391	48.819,20	47,32	9.368,91	9,08	12.700,24	12,31	32.283,81	31,29	103.172,16
Hez. CBU DBH Espezifikoa	1,391	0	61.337,89	74,46	8.339,31	10,12	12.700,24	15,42			82.377,44

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK	IKASMAILA	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	% MODULUA	GASTU ALDAKORRAK	% MODULUA	BESTELAKO GASTUAK	% MODULUA	MODULUA, GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1- KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA EMHZ (LOE)	1.	0,478	1,087	74.619,25	66,68	15.036,69	13,44	22.251,96	19,88	111.907,90
	2.	0,826	0,568	68.190,83	65,50	13.662,38	13,12	22.251,96	21,38	104.105,17
2- ERIZAINZAKO ZAINKETA LAGUNGARRIAK EMHZ	1.	0,435	1,304	82.501,22	68,26	16.686,33	13,81	21.679,81	17,93	120.867,36
	2.	0,261	0	13.225,77	63,47	3.717,47	17,84	3.894,72	18,69	20.837,96
3- SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA EMHZ (LOE)	1.	0,348	1,522	88.199,93	61,87	17.513,53	12,29	36.843,21	25,84	142.556,67
	2.	0,913	0,609	74.500,32	59,10	14.711,45	11,67	36.843,21	29,23	126.054,98
4- AURREINPRIMAKETA DIGITALA EMHZ (LOE)	1.	0,609	1,043	79.217,47	62,51	15.787,65	12,46	31.728,17	25,03	126.733,29
	2.	0,652	0,739	67.301,86	59,73	13.645,29	12,11	31.728,17	28,16	112.675,32
5- INPRIMAKETA GRAFIKOA EMHZ (LOE)	1.	0,696	0,957	79.638,76	61,42	16.033,44	12,36	34.000,09	26,22	129.672,29
	2.	0,653	0,783	69.392,53	59,03	14.167,98	12,05	34.000,09	28,92	117.560,60
6- NEURRIRA EGIND. ZURGIN LANEN ETA ALTZARIEN FABR. ETA INST. EMHZ	1.	0,826	1	88.219,95	64,16	17.434,63	12,68	31.836,37	23,16	137.490,95
	2.	0,565	1	74.994,19	61,43	15.251,19	12,49	31.836,37	26,08	122.081,75
7- FARMAZIA ETA PARAFARMAZIA EMHZ (LOE)	1.	0,652	0,913	75.369,14	68,07	15.048,61	13,59	20.299,53	18,34	110.717,28
	2.	0,652	0,717	66.281,85	66,26	13.450,61	13,45	20.299,53	20,29	100.031,99
8- INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK EMHZ (LOE)	1.	0,696	1	81.632,40	62,89	16.116,94	12,42	32.052,71	24,69	129.802,05
	2.	0,652	0,87	73.375,50	61,08	14.693,53	12,23	32.052,71	26,69	120.121,74
9- MEKANIZAZIOA EMHZ (LOE)	1.	0,522	1,391	90.943,44	64,37	18.136,06	12,84	32.211,39	22,79	141.290,89
	2.	0,696	0,826	73.565,12	60,96	14.899,04	12,35	32.211,39	26,69	120.675,55
10- MERKATARITZA JARDUERAK EMHZ	1.	0,87	0,87	84.422,30	68,38	16.904,36	13,69	22.134,20	17,93	123.460,86
	2.	1,044	0,479	75.111,26	66,79	15.209,15	13,52	22.134,20	19,69	112.454,61
11- MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA EMHZ (LOE)	1.	0,739	0,826	75.744,08	67,28	15.163,42	13,47	21.679,81	19,25	112.587,31
	2.	0,739	0,696	69.716,80	66,10	14.075,40	13,35	21.679,81	20,55	105.472,01
12- HONDEAKETAK ETA ZUNDAKETAK EMHZ	1.	1	0,827	89.016,20	61,83	17.740,76	12,32	37.213,08	25,85	143.970,04
	2.	0,74	0,783	73.801,12	58,58	14.970,61	11,88	37.213,08	29,54	125.984,61
13- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREAK EMHZ	1.	0,74	1,305	98.002,98	70,13	19.376,94	13,87	22.361,37	16,00	139.741,29
	2.	1,175	0,261	71.642,19	65,98	14.577,56	13,43	22.361,37	20,59	108.581,12

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK	IKASMAILA	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	% MODULUA	GASTU ALDAKORRAK	% MODULUA	BESTELAKO GASTUAK	% MODULUA	MODULUA, GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1- NAZIOARTEKO MERKATARITZA GMHZ	1.	1,174	0,348	75.625,16	68,17	14.931,35	13,46	20.381,56	18,72	110.938,07
	2.	1,217	0,217	71.730,47	67,46	14.212,33	13,37	20.381,56	19,54	106.324,36
2- ELEKTRONIKAKO MANTENTZE-LANAK GMHZ	1.	1,435	0,261	84.817,28	65,26	16.790,79	12,92	28.352,76	22,24	129.960,83
	2.	0,87	0,717	77.328,65	63,84	15.445,90	12,75	28.352,76	23,86	121.127,31
3- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK GMHZ	1.	0,87	0,522	68.287,73	65,89	13.827,83	13,34	21.517,55	21,17	103.633,11
	2.	1,348	0,13	74.335,04	67,31	14.582,20	13,20	21.517,55	19,86	110.434,79
4- HAUR HEZKUNTZA GMHZ (LOE)	1.	0,913	0,739	80.527,61	68,97	15.776,76	13,51	20.446,45	17,85	116.750,82
	2.	1,087	0,261	67.182,94	66,56	13.303,08	13,18	20.446,45	20,64	100.932,47
5- MARKETINA ETA PUBLIZITATEA GMHZ	1.	1,174	0,565	85.686,08	69,47	16.297,80	13,21	21.355,24	17,65	123.339,12
	2.	1,13	0,391	75.389,17	67,73	14.563,03	13,08	21.355,24	19,55	111.307,44
6- SALMENTEN ETA MERKATARITZAKO GUNEEN KUDEAKETA GMHZ (LOE)	1.	1,174	0,566	85.732,45	69,01	17.142,90	13,80	21.355,24	17,51	124.230,59
	2.	1,131	0,479	79.519,85	68,03	16.011,80	13,70	21.355,24	18,62	116.886,89
7- SAREKO SISTEMA INFORMATIKOEN ADMINISTRAZIOA GMHZ (LOE)	1.	1,217	0,652	91.898,69	69,71	17.573,23	13,33	22.361,37	17,28	131.833,29
	2.	1,304	0,329	81.331,79	68,15	15.648,39	13,11	22.361,37	19,09	119.341,55
8- AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA GMHZ	1.	0,87	1,043	92.443,23	68,02	18.165,98	13,37	25.301,90	18,97	135.911,11
	2.	1,348	0,261	80.408,69	66,07	15.998,02	13,14	25.301,90	21,19	121.708,61
9- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA GMHZ (LOE)	1.	0,696	1,043	83.626,05	64,88	16.472,07	12,78	28.785,48	22,76	128.883,90
	2.	1,304	0,304	80.172,70	64,44	15.448,69	12,42	28.785,48	23,58	124.406,87
10- GARRAIOAREN ETA LOGISTIKAREN KUDEAKETA GMHZ (LOE)	1.	0,783	0,696	71.946,44	67,32	14.543,90	13,61	20.381,56	19,43	106.871,90
	2.	1,13	0,304	71.355,53	67,49	13.998,10	13,24	20.381,56	19,65	105.735,19
10- GARRAIOAREN ETA LOGISTIKAREN KUDEAKETA GMHZ (LOE) ONLINE	1.	0,391	0,522	44.015,16	67,03	9.358,80	14,25	12.289,47	19,07	65.663,43
	2.	0,609	0,261	42.981,04	66,69	9.167,03	14,23	12.289,47	19,44	64.417,54
11- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA GMHZ (LOE)	3.	0,652	0,217	43.100,00	66,73	9.200,32	14,24	12.289,47	19,39	64.589,79
	4.	0,261		13.225,77	63,47	3.717,46	17,84	3.894,72	19,05	20.837,95
12- ANATOMIA PATOLOGIKOA ETA ZITODIAGNOSTIKOA GMHZ (LOE)	1.	1,348	0,435	88.475,98	69,50	17.141,77	13,47	21.679,81	17,36	127.297,56
	2.	1,13	0,435	77.429,18	67,68	15.296,57	13,37	21.679,81	19,31	114.405,56
13- ARTE GRAFIKOEN INDUSTRIETAKO PRODUKZIOA GMHZ	1.	1,261	0,435	84.087,40	67,74	15.974,31	12,87	24.068,56	19,76	124.110,27
	2.	1,13	0,391	75.389,17	66,12	14.563,03	12,77	24.068,56	21,51	114.020,76
14- FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA GMHZ (LOE)	1.	0,391	1,348	82.311,58	63,03	16.683,41	12,78	31.598,33	24,66	130.593,32
	2.	1,13	0,478	79.422,81	62,70	15.650,33	12,36	31.598,33	25,43	126.671,47
15- GIZARTERATZEA GMHZ	1.	0,783	0,913	82.007,36	65,01	16.122,87	12,78	28.006,57	22,63	126.136,80
	2.	1,522	0,09	81.297,66	65,15	15.485,91	12,41	28.006,57	22,87	124.790,14
16- ERAIKUNTZA-OBREN ANTOLAKETA ETA KONTROLA GMHZ	1.	1,131	0,609	85.547,13	69,49	17.109,14	13,90	20.446,45	16,92	123.102,72
	2.	0,87	0,609	72.321,37	67,30	14.701,19	13,68	20.446,45	19,39	107.469,01
	1.	1,000	0,826	88.973,87	61,70	18.008,31	12,49	37.213,08	25,81	144.195,26
	2.	0,826	0,783	78.145,30	59,57	15.816,61	12,06	37.213,08	28,37	131.174,99

ONARRIZKO MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK/OINARIZKO LANBIDE HEZIKETA	IKASMAILA	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	% MODULUA	GASTU ALDAKORRAK	% MODULUA	BESTELAKO GASTUAK	% MODULUA	MODULUA, GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
Merkataritza zerbitzuak	1.	0,522	0,783	62.754,31	64,53	14.167,30	14,57	20.328,95	20,90	97.250,56
	2.	0,522	0,783	62.754,31	64,53	14.167,30	14,57	20.328,95	20,90	97.250,56
Administrazio Zerbitzuak	1.	0,522	0,783	62.754,31	64,10	14.167,30	14,47	20.980,37	21,43	97.901,98
	2.	0,522	0,783	62.754,31	64,10	14.167,30	14,47	20.980,37	21,43	97.901,98
Bulegoko Informatika	1.	0,522	0,783	62.754,31	64,10	14.167,30	14,47	20.980,37	21,43	97.901,98
	2.	0,522	0,783	62.754,31	64,10	14.167,30	14,47	20.980,37	21,43	97.901,98
Arte Grafikoak	1.	0,522	0,783	62.754,31	61,09	14.167,30	13,79	25.795,57	25,12	102.717,18
	2.	0,522	0,783	62.754,31	61,09	14.167,30	13,79	25.795,57	25,12	102.717,18
Elektrizitatea eta Elektronika	1.	0,522	0,783	62.754,31	60,92	14.167,30	13,75	26.091,44	25,33	103.013,05
	2.	0,522	0,783	62.754,31	60,92	14.167,30	13,75	26.091,44	25,33	103.013,05
Metalezko Elementuen Fabrikazioa	1.	0,522	0,783	62.754,31	60,79	14.167,30	13,72	26.315,31	25,49	103.236,92
	2.	0,522	0,783	62.754,31	60,79	14.167,30	13,72	26.315,31	25,49	103.236,92
Eraikinen Zaharberritze- eta Mantentze-lanak	1.	0,522	0,783	62.754,31	59,20	14.167,30	13,36	29.086,50	27,44	106.008,11
	2.	0,522	0,783	62.754,31	59,20	14.167,30	13,36	29.086,50	27,44	106.008,11

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasle titularren ratioak asteen 23 zuzeneko irakastorduko lanaldia oinarri hartuz kalkulatua dira.

Bigarren Hezkuntzako irakasle titularren eta irakasle agregatuaren ratioak asteen 23 eskola-orduko lanaldia oinarri hartuz kalkulatua dira.

IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN MODULUAK

OINARRIZKO MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK/OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA	IKASMAILA	MODULUA
Elektrizitatea eta Elektronika	1.	103.013,05
	2.	103.013,05
Eraikinen Zaharberritze- eta Mantentze-lanak	1.	106.008,11
	2.	106.008,11
Nekazaritzako Lorezaintza eta Lore-konposizioak	1.	98.028,40
	2.	98.028,40
Sukaldaritza eta Jatetxeak	1.	103.148,82
	2.	103.148,82
Zurgintza eta Altzarigintza	1.	102.958,61
	2.	102.958,61
Ile-apainketa eta Estetika	1.	102.361,10
	2.	102.361,10
Metalezko Elementuen Fabrikazioa	1.	103.236,92
	2.	103.236,92
DBH Kanpoko Curriculum Egokituaren Programa		104.830,37

II. ERANSKINA

GASTUAREN AZALPENA	1 Langileria gastuak	2 Ondasun aruntetako eta zerbitzuetako gastuak	3 Finantza-gastuak	4 Transferentzia aruntak	5 Kontingentzia funtsa	6 Inbertsio errealak	7 Kapital transferentziak	8 Finantza-aktiboak	9 Finantza-pasiboak	GUZTIRA
Lehendakaritza eta Berdintasuna	15.205.222	10.963.348		4.537.090		917.339	10			31.623.009
Ekonomia eta Ogasuna	31.375.966	25.023.330	50.083.121	904.572.080	27.016.098	3.327.685	20	10.350.020	411.260.000	1.463.008.320
Lurralde Kohesioa	16.752.407	101.047.963	110	379.233.221		130.228.784	41.716.843	10		668.979.338
Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politikak	5.806.264	6.901.437		20.648.307		7.333.480	87.531.154			128.220.642
Hezkuntza	591.858.572	77.285.280	10	222.900.224		22.830.904	5.328.080			920.203.070
Osasuna	781.870.876	481.814.718	20	200.438.955		41.030.720	5.177.191			1.510.332.480
Landa Garapena eta Ingurumena	30.479.764	25.089.500	10	56.937.609		11.840.529	55.369.212			179.716.624
Industria eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitala	8.832.623	9.660.067		9.662.702		1.235.910	67.011.636	500.000		96.902.938
Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta Enplegua	46.075.915	222.802.969	10	378.671.630		10.722.669	2.508.373			660.781.566
Kultura, Kirola eta Turismoa	19.536.207	16.840.298		29.286.055		9.737.507	8.015.444			83.415.511
Memoria eta Bizikidetzatza, Kanpo Ekintza eta Euskara	7.228.352	3.302.678		10.132.040		2.502.466	148.000			23.313.536
Bamea, Funtzio Publikoa eta Justizia	373.182.894	20.472.655		25.449.314		14.791.010	93.010	22.509.000		456.497.883
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	9.673.747	34.945.722	1.128	108.346.165		9.169.170	22.989.308	79.719		185.204.959
Nafarroako Kontseilua				466.662			38.000			504.662
Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa				916.710			81.000			997.710
Nafarroako Parlamentua				20.562.259			1.000.440			21.562.699
AURREKONTUA, GUZTIRA	1.937.878.809	1.036.149.965	50.084.409	2.372.761.023	27.016.098	265.668.173	297.007.721	33.359.030	411.339.719	6.431.264.947

DIRU-SARRERAREN AZALPENA	1 Zuzeneko zergak	2 Zeharkako zergak	3 Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	4 Transferentzia aruntak	5 Ondareko diru-sarrerak	6 Inbertsio errealak besterentzea	7 Kapital transferentziak	8 Finantza-aktiboak	9 Finantza-pasiboak	GUZTIRA
Lehendakaritza eta Berdintasuna			670.520	340.030	10		10			1.010.570
Ekonomia eta Ogasuna	2.890.957.000	2.515.661.000	31.606.620	4.040.030	6.129.050	100.040	10	169.986.146	483.084.144	6.101.564.040
Lurralde Kohesioa			2.419.120	53.145	182.257	20	30.000.030			32.654.572
Extebicitza, Gazteria eta Migrazio Politikak			256.502	347.665	41.020	10	10	73.200		718.407
Hezkuntza			2.287.450	12.556.477	36.717					14.880.644
Osasuna			11.846.706	134.110	252.010		30			12.232.856
Landa Garapena eta Ingurumena			2.808.595	12.138.254	20		14.013.760	10		28.960.639
Industria eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitala			561.627	529.391	30	10	6.379.973	10		7.471.041
Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta Enplegua			69.342.600	130.160.928	24.050		20			199.527.598
Kultura, Kirola eta Turismoa			789.000	281.319	259.697		8.430	320.834		1.659.280
Memoria eta Bizikidetasun, Kanpo Ekintza eta Euskara			17.200	79.410						96.610
Barnea, Funtzio Publikoa eta Justizia			5.439.870	2.951.276	20		10	21.659.424		30.050.600
Unibertsitateak, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala			113.020	40			325.030			438.090
AURREKONTUA, GUZTIRA	2.890.957.000	2.515.661.000	128.158.830	163.612.075	6.924.681	100.080	50.727.313	192.039.624	483.084.144	6.431.264.947

III. ERANSKINA

Departamentua	Aurrekontu-partida	Zenbateko a
0. Lehendakaritza eta Berdintasuna	080000-08000-6020-232204 PRIN25, Eraikina berritzea, osasun mentaleko arazoak dituzten eta indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ballabiderako	181.500
1. Ekonomia eta Ogasuna	111002-11300-6020-923105 PRIN25, Higiezinei buruzko Plana. Administrazio bulegoak 151000-17300-6094-931300 PRIN25, Enkargua TRACASA Instrumental sozietateari. PZ Zerga-informazioko sistemen bilakaera 113002-12100-6094-921C05 PRIN25, Lan zentralak eta SAPen bilakaera HANA/4	400.000 3.190.000 1.312.500
2. Lurralde kohesioa	220002-22100-6010-453251 PRIN25, N-121-A 2+1 bide bihurtzeko jarduketak	5.963.000
3. Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politikak	320000-32100-7400-261400 PRIN25, Transferentzia NASUVINSARI. Alokairuko etxebizitzak sustatzea eta eraikitzea	9.000.000
4. Hezkuntza	410001-41800-6020-325105 PRIN25, Ikastetxe berrien eraikuntza eta obrak. Ikastetxeen Plana 410001-41800-7609-325104 PRIN25, Ikastetxe berrien eraikuntza eta obrak. Ikastetxeen Plana 410001-41800-6020-325104 PRIN25, Lanbide Heziketako ikastetxeak garatzeko obrak 430001-43100-6059-322E03 PRIN25, Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetako ekipamendua 430003-43400-6060-322A03 PRIN25, IkasNOVA programaren ekipamendua, parkearen berrikuntza eta zerbitzu nagusiak	1.052.000 3.182.000 3.100.000 1.650.000 2.050.000
5. Osasuna	543000-52200-6020-312815 PRIN25, Ospitale Unibertsitarioa antolatzeko eta birmoldatzeko lanak 546000-52500-6020-312807 PRIN25 Obra Lizarrako García Orcoyen ospitalean 547001-52300-6020-312821 PRIN25, Obrak osasun etxeetan eta oinarritzko osasun laguntzako beste zentro batzuetan 545000-52400-6057-312808 PRIN25, Ekipamendu medikoa 543000-52200-6057-312813 PRIN25, Ekipamendu medikoa	303.000 4.322.000 7.140.000 585.700 5.346.300
7. Landa Garapena eta Ingurumena	710006-71500-7809-414302 PRIN25, Ureztatze-azpiegiturarako inbertsioak	1.469.000
8. Industria eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitala	810001-81100-6015-458100 PRIN25, Inbertsioak industria-azpiegiturretan eta S4 sektoreetan 810001-81100-7609-458104 PRIN25, Trf. Mendabiako Udalari, TBA transformazio eta banaketako azpieztazioa eta azpiegitura osagarria industrialdean 820001-82500-6031-425205 PRIN25, Kudeaketa energetikorako plana Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan	1.192.000 1.000.000 700.000
9. Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta Enplegua	920005-93100-6020-231000 PRIN25, Zentro berekietako obrak	2.000.000
A. Kultura, Kirola eta Turismoa	A20001-A2100-6021-337103 PRIN25, Leireko monasterioa. Ostalua birgaltzea A20001-A2100-7819-337105 PRIN25, Eraikin historiko-artistikoak zaharberritzea eta babestea (Vianako Andre Mariaren eliza)	1.800.000 830.000
F. Barnea, Funtzio Publikoa eta Justizia	F30000-F3000-6094-921C00 PRIN25, Lizenziak eskuratzeko SAP S/4 HANA F30000-F3000-6094-921C05 PRIN25, Lan zentralak eta SAPen bilakaera HANA/4 F42000-F4200-6094-132200 PRIN25, TRACASA instrumentalarri enkargua. Informazio-sistemak	120.000 190.000 1.500.000
G. Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	G10001-G1100-6020-322300 PRIN25, Eraikitzea Industrializazio eta Robotikako Zentro Nazionala, Eraikuntzari eta Arkitekturari Aplikatua (CNIR) G10001-G1100-6020-322302 PRIN25, SEM Enkargua Nasuvinsari. Eraikuntzaren Industrializazio eta Robotikako Zentroa G10001-G1100-7455-322303 PRIN25, UPNarentzako kapital-transferentzia: Tuterako campusa, jardueren fisikoaren eta kirolaren zientzietako graduoko eraikina	5.460.000 100.000 2.000.000

11-24/LEY-00011. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua izapidetzeko egutegia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua izapidetzeko egutegia onestea, zeina hurrengo atalean jasotzen baita. Hona hemen horren laburpena:

* Foru lege proiektuaren sarrera erregistroa: urriaren 30ean.

* Izapidetzeko onartzea (Mahaia eta Eledunen Batzarra): urriaren 30ean.

* Proiektua argitaratzea: azaroaren 5ean.

* Zuzenketak taxutzeko programari buruzko bilera: azaroaren 5ean, 09:30ean.

* Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen lan-bilkura: azaroaren 5ean, 12:15ean.

* Osoko zuzenketak aurkezteko epemuga: azaroaren 11n, 12:00etan.

* Osoko zuzenketak onartzea: azaroaren 11n, 13:00etan.

* Osoko zuzenketak argitaratzea: azaroaren 18an.

* Osoko zuzenketak eztabaidatzeko Osoko Bilkura: azaroaren 21ean, 09:30ean.

* Zuzenketa partzialak aurkezteko epemuga: azaroaren 19an, 14:00etan.

* Zuzenketa partzialak ordenatzea: azaroaren 20an.

* Gobernua: azaroaren 20tik 27ra.

* Zuzenketa partzialak onartzea: azaroaren 28an.

* Artikuluei eta aurrekontuko partidei aurkezturiko zuzenketak argitaratzea: azaroaren 28an.

* Errekurtsoa jartzeko epemuga: abenduaren 5ean, 12:00etan.

* Eledunen Batzarrak errekurtsoa ebazteko: abenduaren 9an.

* Batzordeko eztabaida: abenduaren 9tik 13ra.

* Irizpena onestea: abenduaren 16an.

* Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko epemuga: abenduaren 17an, 12:00etan.

* Legebiltzarreko Mahaia, eutsitako zuzenketen eta boto partikularren berri izan duela adierazteko: abenduaren 17an, 13:00etan.

* Legelari nagusiari e-mailez bidalitako idazkia, eutsitako zuzenketei eta boto partikularrei buruz eskatzen diren bozketa-multzoak jakinarazteko: abenduaren 17an, 17:30ean.

* Irizpena argitaratzea, zuzenketa eta boto partikularrekin batera: abenduaren 18an.

* Osoko Bilkura: abenduaren 19an, 09:30ean.

Bigarrena.- 1. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua 2024ko azaroaren 5eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, osoko zuzenketak aurkezteko epea azaroaren 11n bukatuko da, 12:00etan, eta artikuluei eta partidei zuzenketak aurkezteko epea, azaroaren 19an, 14:00etan.

2. Zuzenketak aurkezteko epe horren barruan, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen lan-bilkura deituko da, azaroaren 5erako, 12:15ean. Bertan Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak parte hartuko du, egoki deritzen zuzendari nagusi eta teknikariek batera.

3. Osoko zuzenketarik baldin badago, Ekonomia eta Ogasun Batzordeko Mahaiak izapidetzeko onartuko ditu, eta Parlamentuko lehendakaritzara bidaliko ditu azaroaren 11n. Balizko osoko zuzenketen eztabaida eta bozketa azaroaren 21eko Osoko Bilkuran egingen da.

4. Azaroaren 20an, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiak ordenatu egingen ditu artikuluei eta partidei aurkeztutako zuzenketak eta, kasua bada, Nafarroako Gobernuari igorriko dizkio gastu-gehikuntza edo diru-sarreraren murrizketa dakarten zuzenketak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 176. artikuluan eta horri loturikoetan adierazitako moduan.

5. Azaroaren 28an, Batzordeko Mahaiak zuzenketak onartuko ditu, bai eta, kasua bada, Nafarroako Gobernuak txostena egin duenekoak ere. Batzordeko Mahaiak zuzenketak izapidera ez onartzeko hartutako erabakiaren kontra errekurtsoa aurkeztu ahaliko zaio Eledunen Batzarrari, Erregelamenduko 149.2 eta 176.3 artikuluekin bat. Errekurtsoa aurkezteko epea abenduaren 5eko 12:00etan bukatuko da.

6. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak abenduaren 9an bilera hasiko du, eta haren eztabaidek

abenduaren 13an bukatu beharko dute, egun horretan egina egon beharko baitu proiektuari buruzko irizpenak.

7. Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko epea abenduaren 17ko 12:00etan bukatuko da.

8. Abenduaren 17an Legebiltzarreko Mahaiak adieraziko du eutsitako zuzenketa eta boto partikularren berri izan duela, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 159. artikuluan adierazitako moduan, eta Osoko Bilkurako kideei igorriko dizkie.

9. 2024ko abenduaren 19ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatuko da 2025erako Nafarro-

ako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua.

Hirugarrena. Erabaki hau igortzea talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunei, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiko kideei eta Nafarroako Gobernuari, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/LEY-00011. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko arauak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrarekin bat, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Ikusita 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua, Nafarroako Gobernuaren 2024ko urriaren 30eko Erabakiaren bidez Legebiltzarrari igorria eta Parlamentuko Erregistro Orokorrean 2024ko urriaren 30ean sartua, Erregelamenduko 174. eta 177. artikuluekin bat honako hau ERABAKITZEN DA:

Lehena.- 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua –"proiektua", aurrerantzean– eztabaidatu eta bozkatzeko honako arau hauek onestea.

1. Proiektua, Mahaiak izapidetzeko onartu ostean, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari igorriko zaio, horrek irizpena eman dezan.

2. Proiektua berehala argitaratuko da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, eta argitaratzearekin batera, epe bat irekiko da, 2024ko azaroaren 11ko 12:00etan bukatuko dena, zeinean talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarreak eta foru parlamentarien nork bere izenean osoko zuzenketak aurkeztu ahalko baitituzte. Beste epe bat ere irekiko da, 2024ko azaroaren 19ko 14:00etan bukatuko dena, artikuluei eta partidei zuzenketak aurkeztu ahal izateko, 3. arauan xedaturikoa aintzat hartuz. Aipatu zuzenketak Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiari zuzenduko zaizkio.

3. Zuzenketak honelakoak izan ahalko dira:

a) Proiektu osoari aurkeztuak. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzeko proposatuko dute, eta hari eskatuko diote hasierako proiektuaren oinarri izan zirenez bestelako printzipio batzuetan oinarritutako proiektu bat prestatzeko.

Departamentu baten edo Programa eta Ekonomia Korrelazioa izenekoan ageri diren entitateetako baten programa-multzo osoa ukitzen duten zuzenketak proiektua Gobernuari itzultzeko osoko zuzenketa gisa aurkeztu beharko dira.

Osoko zuzenketak egiteko, "2025_CrearEnmiendasArticulado" Word-eko plantilla erabiliko da. Zuzenketa horiek egiteko, aintzat hartuko dira I. eranskinean jasotako jarraibideak.

b) Proiektuaren edozein artikuluri aurkeztuak.

Artikuluei aurkezturiko zuzenketak egiteko, "2025_CrearEnmiendasArticulado" Word-eko plantilla erabiliko da. Zuzenketa horiek egiteko, aintzat hartuko dira I. eranskinean jasotako jarraibideak.

c) Proiektuaren barruko edozein "programa", "proiektu" zein "partida"ri aurkeztuak.

Aurrekontu-partidei aurkeztekoak diren zuzenketak egiteko, "2025_CrearEnmiendasPartidas. ACCDB" izeneko aplikazio informatikoa erabiliko da. Zuzenketa horiek egiteko, aintzat hartuko dira I. eranskinean jasotako jarraibideak.

4. Kontzepturen batean gastuak gehitzea edo diru-sarrerak gutxitzea dakarten zuzenketek Nafarroako Gobernuaren aurretiazko onespina beharko dute izapidetzera onartuak izateko. Hala ere,

aipatu onespina ez da derrigorrezkoa izanen aurkeztutako zuzenketak zehazten baldin badu zein diren proiektuan jadanik izendaturiko baliabideak, gastu gehikuntza edo diru-sarreraren gutxitzea finantzatzekoak.

Batzordean aurkezten diren eta kontzepturen batean gastuak gehitzea edo diru-sarrerak gutxitzea dakarten "in voce" zuzenketek Nafarroako Gobernuaren aurretiazko onespina beharko dute izapidetzera onartuak izateko. Horretarako, egun bateko epea ezarriko da gutxienez, eta Mahaiak erabakiko du epe hori. Nafarroako Gobernuak ez badu erantzunik ematen epe horretan, izapidezarekin ados dagoela ulertuko da.

Ados egote hori, hala ere, ez da derrigorrezkoa izanen baldin eta aurkeztu den zuzenketak gastu gehikuntza edo diru-sarreraren gutxitzea finantzatzeko baliabideak, proiektuan izendaturik behar dutenak, zehazten baditu, Erregelamenduaren 176.2 artikulua xedatzen duenez.

5. Proiektuari aurkeztutako zuzenketek ezin dute inola ere murrizketarik proposatu Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 47. artikuluko 1. apartatuko a), b), c) eta e) letretan jasotako kreditu zabalgarrietarako aurreikusitako kontsignaziorako, eta horrelako zuzenketarik aurkezten baldin bada, onartu gabe utziko da.

6. Zuzenketak aurkezteko epea bukatu baino lehen, Parlamentuko lehendakariak Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen eta arlo horretaz arduratzen den kontseilariaren arteko lan bilerarako deia egingen du; zuzendari nagusiekin eta egoki iritzitako teknikariek bertaratu daiteke aipatu kontseilaria.

7. Osoko zuzenketarik aurkeztu baldin bada, Batzordeko Mahaiak iritzia emanen du horiek izapidetzera onartzeari buruz, eta batzordeburuak Parlamentuko lehendakariari bidaliko dizkio, eztabaidatu behar direneko Osoko Bilkuraren gai zerrendan sar ditzan.

8. Artikuluei eta partidei zuzenketak aurkezteko epea amaitu ondoren, Batzordeko Mahaiak zuzenketak ordenatuko ditu eta igorriko dizkie Parlamentuko lehendakariari, talde parlamentarioei, foru parlamentarien elkarteari, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko kideei eta Nafarroako Gobernuari. Halaber, Erregelamenduaren 176. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, erabakiko du Gobernuari igortzea gastu-gehikuntza edo diru-sarreraren murrizketa dakarten zuzenketak.

Nafarroako Gobernuak txostena egin beharko du eta egutegian adierazitako epean bidali behar-

ko du. Txostena jaso ondoren, Batzordeko Mahaiak iritzia emanen du Gobernuak txostena egin dueneko zuzenketak izapidetzera onartzeari buruz eta aurkeztutako gainerako zuzenketei buruz.

9. Parlamentuko lehendakariak zilegi izanen du hogeita lau ordu baino gutxiagoko aurrerapenarekin dei egitea Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen bilerara, kasuko eztabaidari ekiteko.

10. Osoko zuzenketen eztabaida eta bozketa Erregelamenduko 101. eta 151. artikuluek ezarritakoaren arabera egingen da Osoko Bilkuran.

11. Osoko eztabaida bukatu eta Osoko Bilkurak proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea erabaki ez badu, edo osoko zuzenketarik ez bada aurkeztu, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak bilera egingen du, 9. arauarekin bat Legebiltzarreko Lehendakariak kasuko deialdian finkaturiko toki, egun eta orduan.

12. Batzordean, honako hauek eztabaidatu eta bozkatuko dira lehenbizi, Erregelamenduaren 153. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan: 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektuaren artikulua, 2. artikulua salbu, eta horiei aurkeztu zaizkien zuzenketak.

13. Ondoren, honako hauek eztabaidatu eta bozkatuko dira, Erregelamenduaren 153. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan: zuzenketak aurkeztu zaizkien diru-sarrera eta gastu kategoria ezberdinak eta horiei aurkeztu zaizkien zuzenketak. Zuzenketarik jaso ez duten guztiak batera eztabaidatu eta bozkatuko dira.

14. Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko epea 2024ko abenduaren 17ko 12:00etan bukatuko da.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 159. artikuluekin bat, Legebiltzarreko Mahaiak erabaki bat hartu beharko du eutsitako zuzenketei eta formalizatutako boto partikularrei buruz, bai eta Osoko Bilkurako kideei igortzeaz ere, horiek eztabaidatu eta bozkatzeko.

15. Eutsitako zuzenketei eta formalizatutako boto partikularrei buruz Mahaiak hartutako erabakia jakinarazi ostean, talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunek legelari nagusiarri e-mailez igorriko dizkiote eutsitako zuzenketetarako eta boto partikularretarako eskatzen diren bozketa bereiziko multzoak; horretarako epea abenduaren 17ko 17:30ean amaituko da.

16. Osoko Bilkuran irizpenaren osoko eztabaida bakarra egingen da, zeinean talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkartek, handiene-

tik txikienerako hurrenkeran, 20 minutuko hitz egiteko txanda izanen baitute. Horren ondoren 10 minutuko ihardespentxanda izanen dute lege proiektuaren alde bozkatuko ez duten talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak, handienetik txikienerako hurrenkeran. Jarraian, bozketa egingen da.

Bozketa honela egingen da: lehendabizi, artikuluei aurkezturiko zuzenketa eta boto partikularrak bozkatuko dira; talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak aurkezturiko guztiak batera bozkatuko dira, salbu eta horietakoren bat bereizita bozkatzeko eskatzen bada. Ondotik, testu artikuluduna bozkatuko da bere osotasunean, salbu eta 2. artikulua, zeina amaieran bozkatuko baita, non eta ez den eskatzen arauen baten bozketa bereizia egitea.

17. Horren ondoren bozkatuko dira zuzenketa edo boto partikularren xede izan diren diru-sarrera eta gastu kategoriak eta haiei buruzko zuzenketa edo boto partikularrak. Lehenbizi bozkatuko dira aurrekontu-partidei aurkeztutako eta izapidetara onaturiko "in voce" zuzenketa, eta, gero, taldeek edo parlamentarien elkarteak mantendutako zuzenketa guztiak, ordezkari gehien dituen taldeak mantendu dituenetatik hasita. Horretarako, zuzenketa edo boto partikularrak onesten ez badira, zuzenketa edo boto partikular horien xede izan diren aurrekontu-lerroak onetsizat emanen dira.

Azkenik, zuzenketa aurkeztu ez zaien aurrekontu-partidak bozkatuko dira.

18. Baldin eta zuzenketa onestearen edo artikulua edo diru-sarreraren nahiz gastuen kontzeptuak bozkatzearen ondorioz suertatu diren artikuluen multzoa edo kontzeptu horiek kontraesanekoak edo osatugabeak gertatzen badira aurrekontuak partidaka sailkatzen dituen liburukiarekin alderatuta, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiak eta, kasua bada, Legebiltzarreko Mahaiak, behar diren aldaketak sartzen ahalko dituzte, gertatu ahal izan litezkeen kontraesanak zuzentzeko.

19. Arau hauetan aurreikusita ez dagoen guttitan, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakolari jarraituko zaio.

20. Arau hauek aldatu ahalko dira Legebiltzarreko Mahaiak Eledunen Batzarrarekin adosturiko erabakiaren bidez.

Bigarrena.- Arau hauek talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunei, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiari eta Nafarroako Gobernuari igortzea, eta Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

I. ERANSKINA AURREKONTUEI ZUZENKETAK PRESTATU ETA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK

Osoko zuzenketak eta artikuluei nahiz aurrekontu-partidei aurkezturikoak

1. 2024ko azaroaren 5ean, Parlamentuko sareko "P:\\" unitatean, "2025Presupuestos" izeneko karpetan, ipiniko dira "2025_CrearEnmiendasArticulado" izeneko Word-eko plantilla bat, osoko zuzenketak eta artikuluen zuzenketak prestatzekoa, eta Access aplikazio bat, "2025_CrearEnmiendasPartidas" izeneko, zeinaren bitartez prestatuko baitira 2025erako aurrekontuen proiektuko partidei aurkeztu beharreko zuzenketak. Horrez gain, karpeta horretan argibide-dokumentu bat utziko da, programa horiek nola erabili behar diren azaltzen duena.

Partida, programa eta proiektu berrien izenak ezin izanen dira 117 karaktere baino luzeagoak izan, hori baita SAP tresnak ahalbidetzen duen gehienekoa, eta ezin izanen dira puntu batez bukatu. Zenbatekoak ez du hamarrenik onartzen, eta ezin izanen da izan 10 euro baino txikiagoa.

Aplikazioarekin eta horren informazio eta funtzionamenduarekin zerikusia duen edozein zalan-tza argitzeko, Asun Marzalengana jo daiteke (telefonoa: 1234) edo Txema Arcerengana (telefonoa: 1260).

2. Talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkar-teak eta foru parlamentarien ziurtagiri digital baten bitartez sinatu beharko dituzte egindako zuzenketak. Epea bukatu aitzin, Parlamentuko egoitza elektronikoan aurkeztuko dira zuzenketak. Horretarako, beharrezkoa da Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiri digital bat edukitzea.

In voce zuzenketak

Zuzenketak aurkezteko epe arrunta bukatuta, Parlamentuko sareko "P:\\" unitateko "2025Presupuestos" karpetan Access aplikazio bat ipiniko da, "INVOCE_2024_CrearEnmiendasPartidas.ACCDB" izeneko, partidei in voce zuzenketak egitekoa, eta zuzenketa mota hau prestatzeko baizik ez da erabiliko. Artikuluei in voce zuzenketak egiteko, "2025_CrearEnmiendasArticulado" izeneko Word-eko plantilla erabiliko da.

Bilera parlamentarioko eztabaidan adostutako in voce zuzenketetarako, bilera-aretoan eskuragarri egonen dira horien datuekin bete beharreko paperezko ereduak.

Zuzenketei eta boto partikularrei eustea

Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkar-teak eta banakako foru parlamentarien horretarako diseinaturik dagoen plantilla erabiliko dute, zeina eskueran izanen baitute Parlamentuko sareko "P:\\" unitateko "2025Presupuestos" izeneko karpetan. Hauxe da plantilla-dokumentuaren izena: Plantilla_Mantenimiento de enmiendas.doc.

Aurrekontu-partiden kodifikazioaren tratamendua

1. Zuzenketa teknikoa.

Zuzendutako partiden kodifikazio okerra legelariak zuzenduko du, eta zuzenketa tekniko gisa gehituko da.

2. Osatze teknikoa.

Kodifikaziorik ez duten partidei aurkeztutako gehitzeko zuzenketak legelariak osatuko ditu Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Aurrekontuen Atalarekin lankidetzan. Osatze hori kode organikoari, ekonomikoari eta funtzionalari buruzkoa izanen da soil-soilik.

3. Gehitzeko zuzenketak.

Aurrekontu-proiektuko partiden kodifikazioa aldatu nahi denean, gehitzeko zuzenketa baten bidez egingen da.

Gehitzeko zuzenketetako partiden izenetarako estilo-doikuntzak

Partidei egindako gehitzeko zuzenketetan, partiden izenetarako estilo-doikuntzak legelariak osatuko ditu Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Aurrekontuen Atalarekin lankidetzan.

Helarazten diren estilo-doikuntzak, halakorik balego, dagokion departamentuaren batzordean eztabaidatu eta hurrengo egunean igorriko dira, eta, betiere, irizpena onetsi aurreko egunean.

